

2023ko txostena



ERRUMANIAR JATORRIKO NAFARROAKO

SPOITORIS

IJITO POPULAZIOA

Osasunerako, hezkuntzarako,
enplegurako eta tratu-berdintasunerako
eta diskriminazio-azarako eskubideen
urraketei buruzko txostena

Babeslea

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Proiektuaren egilea



Babeslea

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**



Egilea

Munduko Medikiak Nafarroa

Ikertzaileak

María Flamarique Esparza
Maite Sánchez Galera
Lula Humber Garaikoetxea
Eneko Elizari Aldaia
María Cazacu

Ikerketa-laguntzaileak

Gabriela Calofir
Natalia Ros Larumbe
Nerea Rosagaray Ortiz
Johanna Flores González
Teresa Fernández Salinas
Maite García Pérez
Amaia García Bosque
Fátima Djarra Sani

Diseinua eta maketazioa

Cósmica®

MUNDUKO MEDIKUAK NAFARROA

Txostena ERRUMANIAR JATORRIKO
NAFARROAKO *SPOITORIS* IJITO POPULAZIOA

Identifikatzailea: 2311066040618

Izena emateko data: 06-nov-2023 15:33 UTC

Lizentzia Creative Commons

Attribution-NonCommercial-ShareAlike 4.0



safeCreative
Do what's unique



Munduko Medikiak Nafarroa
Iruña, 2023ko azaroa

2023

**ERRUMANIAR
JATORRIKO
NAFARROAKO**

SPOITORIS

**IJITO
POPULAZIOA**

**Osasunerako, hezkuntzarako,
enplegurako eta tratu-berdintasunerako
eta diskriminazio-ezarako eskubideen
urraketei buruzko txostena**

AURKIBIDEA

ESKER ONAK	05	BIBLIOGRAFIA	40
HITZAURREA	06	ERANSKINAK	41
01. TXOSTEN HAU EGITEA JUSTIFIKATZEN DUTEN ARRAZOIAK	08	01. GLOSARIOA	41
02. AZTERLANAREN ERREFERENTZIA-MARKOA ETA PRINTZPIO GIDATZAILEAK	10	02. TdD TALDE TRIANGELUARRAREN GIDOIA	42
03. HELBURUAK ETA NORAINOKOA	11	03. GIZARTE ZERBITZUEN ETA TdR-EN GALDETEGIEN GIDOIA	44
04. METODOLOGIA	12	04. PARTE HARTZEKO BAIMENA EMATEKO ORRIA	45
05. ERRUMANIAR JATORRIKO <i>SPOITORIS</i> IJITOEI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ETA AZTERTZEKO SISTEMA	16		
06. OSASUNERAKO ESKUBIDEA	18		
07. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA	22		
08. ENPLEGURAKO ESKUBIDEA	26		
09. TRATU-BERDINTASUNERAKO ESKUBIDEA ETA DISKRIMINAZIOAREN ETA ANTIGITANISMOAREN AURKAKO BORROKA	30		
10. PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA	34		
11. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	35		

ESKER ONAK

Txosten hau Nafarroako Gobernuaren Memoria eta Bizikidetzako Zuzendaritza Orokorrek Munduko Medikuek elkartean jarritako konfiantzari esker egin da. Izan ere, txostena egitea finantzatu du Nafarroako Foru Erkidegoan bizi baina jatorriz Errumaniakoa diren *spoitōris* ijitoen osasunerako, hezkuntzarako, enplegurako eta tratu-berdintasuneko eskubideen urraketa eta diskriminazioaren kontrako borroka aztertzeke.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu Oinarrizko Zerbitzuetako, osasun-etxeetako eta Hezkuntza, Osasun, Gizarte Eskubide, Nafarroako Enplegu Gerentzia eta Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako, Gizarte Ekintzako eta Kirol Ataletako profesionalari. Galdetegietan eta elkarrizketetan eman ziguten informazioa ezinbestekoa izan da txosten hau egiteko.

Ijito etniako errumaniarrekin lan egin eta esku hartzen duten gizarte-entitate guztiei, euren jardunean hauteman dituzten eskubide-urraketari buruzko oharra eta bizipenak partekatzeagatik. Komunitate etniko horren ongizatea hobe lezaketan proposamenak eta lan-ildoak ere eskertzen ditugu.

Noski, txosten honek ez zukeen zentzurik izango talde triangeluarretan parte hartu duten gizon-emakumeen inplikazio eta parte-hartzerik gabe, errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoek egunerokoan jasaten dituzten eta aurre egin behar dieten esperientzien eta eskubide-urraketen bizipenak partekatu baitituzte Munduko Medikuek erakundearekin. Zinez eskertu nahi ditugu haien guztien ekarpenak. Ekarpene horiei esker haien eskubideetarako irispidea eta baliatze eraginkorra hobetuko dituztela espero dugu.

Eta amaitzeko, biziki eskertzen ditugu txosten honen prestaketaren etapa ezberdinetan parte hartu duten teknikari eta boluntario guztiak. Haietako bakoitzaren kolaborazioari esker, Nafarroako errumaniar jatorriko *spoitōris* ijito komunitatearen eskubideen urraketa ezeztatu, errespetatu, bermatu eta babesten laguntzeko helburua duen txosten hau argitaratuko da.

HITZAURREA

Munduko Medikuek elkarteak pertsona guztiek osasunerako eskubidea eta bizitza duina edukitzea du helburu, beti ere giza eskubideen eta genero-ikuspegitik. Gure aburuz, osasunerako eskubidea guztiz baliatzea lan egiten dugun kolektiboen identitate ezberdinen aniztasunaren aitortza-, irudikapen-, jarduketa- eta ezagutza-faltak baldintzatzen dute sarri.

Gizarte bidezkoago, berdinzaleago eta solidarioago bateranzko bidean lan egiteko konpromisoa dugu, eta elkartearen goiburuan islatzen da: “gaixotasun guztiei egiten diegu aurre, baita injustiziari ere”. Berdintasun-eza eta injustizia sozialeko egoera horiek daude gizateriaren hiru laurdenari osasunerako eskubidea eta bizitza duina izatea galaraztearen oinarrian. Pertsona guztientzako, baina bereziki zaurgarrienentzako, osasunerako-eskubidearen aldeko legeak eta politikak sustatzearen alde ere lan egiten dugu.

Munduko Medikuek Nafarroak duela hamarkada bat baino gehiago Foru Erkidegoan finkatzen joan diren errumaniar jatorriko *spoitoris* ijitoekin lan egiten du 2015az geroztik.

Ijitoek mendeetan Europako aberastasun kulturalean, aniztasunean, ekonomian eta historia komunean lagundu badute ere, komunitate horretan desberdinkeria eta bidegabekeria larriak

daude oraindik biztanleria orokorraren aldean. Orobat, ijito herritarren ehuneko handi bat diskriminazioaren, intolerantziaren eta gizarte-bazterketaren biktima da oraindik. Gaiari buruzko txosten batzuetan “*ijito auzia*” deitu izan dena erronka da oraindik nazioarteko esparruan, bai eta esparru nazional eta autonomikoan ere.

Bistan da oraingoz ezinezkoa izan dela ijitoen erabateko inklusioa lortzea. Desberdinkeriek komunitate horri eragiten diete oraindik hainbat eskubidetarako sarbidean, osasunean, hezkuntzan, enpleguan, etxebizitzan eta tratu-berdintasunean, besteak beste. Arintzen ez den diskriminazioak, antigitanismoarekin eta gizarte-bazterketarekin batera, ijitoei arlo horietan haien eskubideak baldintza- eta aukera-berdintasunean baliatzea galarazten die. Aitortza eta aurrerapausoak gorabehera, ijitoen erabateko inklusiorako irispidea eskuratzeko zailtasunak indarrean daude oraindik, eta Nafarroa ez da salbuespena.

Errumaniar jatorriko *spoitoris* ijitoak berariaz aipatzen ditugunean, herritartasun osoa eskuratzeko eragozten dieten egiturazko faktoreak are konplexuagoak dira. Etniaz, generoaz, desberdinkeria sozial eta ekonomiko estrukturalaz gain, migranteak izatea diskriminazioaren funtsezko eragilea da, txostenean ikusiko dugunez.

SPOITORIS IJITO POPULAZIOA

Ijito komunitatearen ezaugarrietako bat taldearteko aniztasun handia da. Korrante akademiko ezberdinek ijito etniako populazio-taldeetan hiru talde handi ezberdintzen dituzte, historikoki zein eremu geografikotan kokatu diren kontuan hartuta: Caló/Kaló, Iberiar Penintsulan: Espainian eta Portugalen; Sinti/Manouche, batez ere Alemanian, baina Frantzia, Herbehereetan, Belgikan eta Italian ere bai; Balkanetako Rom, nagusiki Hungarian, Errumanian, Mazedonian eta Moldavian (Vallés, 2017).

Historikoki *spoitōris* taldea Errumanian, Danubio ibaiaren inguruetako hirietan, kokatu zen eta XIX. mendetik aurrera objektuak eztañuztatzen lan egiten zuten. Hortik datorkio *spoitōris* izena, errumanierako *spoi* edo eztañuztatu aditzetik baitator¹ (Petcut et al., 2003).

Azken datuen arabera, 2016koak direnak², Nafarroan errumaniar jatorriko 500 ijito inguru daude. Gehienak *spoitōris* taldekoak dira eta Errumaniako Calarasi eta Ilfov eskualdeetan dute jatorria.

-
1. Pieza bat edo beste metal batezko objektu bat eztañuz estali edo bainatzea. Metalezko bi pieza eztañuarekin soldatzea.
 2. Gobierno de Navarra (2019). *Estrategia para el Desarrollo de la Población Gitana de Navarra (2019-2022)*.

01. TXOSTEN HAU EGITEA JUSTIFIKATZEN DUTEN ARRAZOIAK

Duela hamarkada bat baino gehiago, errumaniar jatorriko *spoitōris* ijito familiak Nafarroako txoko ezberdinetan finkatzen hasi ziren, Iruñian batez ere, Milagrosa-Arrosadia auzoan. 2015. urteaz geroztik, Munduko Medikuek Nafarroak auzo horretako *spoitōris* komunitatearekin lan egiten du. Azken urteotan, populazio hori arian-arian Iruñeko beste auzo batzuetan eta Nafarroako hainbat herritan ere kokatu da, Agoitzen eta Tuteran, kasurako.

Munduko Medikuek elkarrekin errumaniar jatorriko populazio horrekin egin duen lan-ibilbideari esker, kolektibo horrek pairatzen dituen diskriminazio-faktoreak identifikatu ahal izan ditu, bertako ijitoek jasaten dituzten antzekoak direnak, baina are latzagoak, gehienak migranteak izateagatik. Osasunerako, hezkuntzarako, enplegurako, etxebizitzarako eta tratu-berdintasunerako edo diskriminazio-ezarako eskubideetarako irispidea izateko dituzten oztopoak erraldoiak dira. Ondutako lanean oinarrituta, Munduko Medikuek kolektibo horrek pairatzen dituen giza eskubideen askotariko urraketak antzeman eta horiei buruzko lekukotzak jaso ditu.

Munduko Medikuek elkarrekin ikuspegiak, bizitako gertakarietan oinarritzen denak, baieztatzen du *spoitōris* ijito populazioa biztanleria orokorra baino askoz gazteagoa dela. Haien familia-unitateak biztanleria orokorrarenak baino handiagoak dira familia bakoitzeko hainbat belaunaldi barne hartzen dituztelako. *Itundutako ezkontzak*, populazio honek adin nagusikoak ez diren gizon eta emakumez osatutako bikoteen ezkontzari esaten zaion moduan, ohikoak dira eta 18 urtetik beherako emakume ezkonduen haurduntza goiztiarrak, usuak.

Datu kuantitatiborik eman ezin daitekeen arren³, Munduko Medikuek elkarrekin ikusi du errumaniar

jatorriko *spoitōris* ijito gazteek hezkuntza-maila baxua dutela eta helduen artean analfabetismo-tasa altua dela, emakumeen artean batez ere. Kolektibo horren langabezia-tasa izugarri altua da biztanleria orokorrarenarekin alderatuz gero. Ehuneko handi batek oso gaizki ordainduta dauden prekarietate handiko lan informalak onartzera behartua ikusten du bere burua, beren familia handien oinarritzko premiak asetzeko.

Okertzeko beldurrik gabe baieztatu daiteke errumaniar jatorriko *spoitōris* ijito populazioan pobrezia eta gizarte-bazterketa egoeran bizi direnen ehunekoak altuenetakoa dela, zaurgarritasun-egoeran dauden gainerako populazio-kolektiboak erreferentzia gisa hartuz gero. Nabarmenezkoa da, halaber, ia ez dagoela populazio horrekin berariaz esku-hartzen duen gizarte-entitaterik.

Horrez gain, genero-arrakala oso markatua dago kolektibo horretan. Errumaniar jatorriko *spoitōris* emakume ijitoek hezkuntzarako edo enplegurako eskubideak, besteak beste, eskuratzeko dituzten aukerak askoz ere urriagoak dira gizonen kasuan baino. Emakumeek eremu pribatuko lana eta arduren zama hartzen dute gehienbat, familiako haurren eta helduen zaintza kasu, eta hori da hein handi batean hezkuntza- eta lan-arloetarako irispidea mugatzen diena.

Nafarroan bizi diren *spoitōris* ijitoak Errumanian, alegia Europar Batasuneko estatu batean, jaioko dira. Horrenbestez, herritartasun europarra izateak Espainian aske mugitu eta bizitzeko eskubidea ematen die, formalitate jakin batzuen mende, erresidentzia hiru hilabete baino gehiagokoa ez bada. Alabaina, aurkitzen duten oztoporik handienetakoa bat autoritate eskudunetan erregistratzeko zailtasunak eta mugak dira. Ildo

horretan, errumaniar jatorriko herritarren ehuneko handi batek ez du atzerritarren nortasun zenbakirik (AIZ), eta oztopo horrek are zaurgarritasun-egoera handiagoan jartzen ditu Nafarroako Foru Erkidegoan.

Populazioaren sektore horri buruzko datu kuantitatiboak urriak dira eta ez daude eguneratuta. 2016an Ijitoen Idazkaritza Fundazioaren (FSG) eta Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren informazioetan oinarrituta egindako estimazio batean⁴, esaten da Europako ekialdeko herrialdeetatik datorren Nafarroako ijito populazioa 511 lagunekoa dela gutxi gorabehera. Milagrosa-Arrosadian bizi diren errumaniar jatorriko ijitoei buruzko beste diagnostiko batean jasotako datuen arabera⁵, 2019. urtearen amaieran kolektibo horretako 218 lagun bizi ziren Iruñeko auzo horretan. Orobat, FSGk kalkulatu zuen 2016an errumaniar jatorriko Nafarroako ijito populazioaren ia erdia Iruñean bizi zela⁶.

Nafarroako Gobernua eta beste erakunde batzuk ere jabetzen dira errumaniar jatorriko ijitoek bizi duten errealitateaz eta, horrela, Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019-2022ko Estrategian *"ijito auzia"* lehentasunezkoa zela adierazi zuten⁷. Ildo horretan, *"beharrezkoa deritzo populazio horrek askotariko arloetan, osasunean, hezkuntzan, enpleguan eta tratu-berdintasunean adibidez, pairatzen dituen desberdinkeriak murriztea, eta bereziki erreparatu behar zaie ijito gazteei eta emakumeei tratu-berdintasunean diskriminazio-ezan"*⁸.

Dokumentuak Nafarroako Gizarte Inklusiorako 2018-2021 Plan Estrategikoak jada jasotako jarduketara orokorrak konbinatzen ditu, Nafarroan ijitoen garapenerako ekintza-politika publikoak ezarriko dituen berariazko ekintza-estrategia espezifiko batekin. Horrela, Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019-2022ko Estrategiak modu aitzindari jorratu zuen ijitoen aurkako diskriminazioa, eta dokumentuak ibilbide-orri bat osatzen du, non *"lehentasunak ezartzen diren eta Nafarroan ijitoak garatzeko beharrezkoak diren ekintza-ildoak finkatzen diren, proposatutako neurrien izaera transbertsala nabarmenduz, eta, Nafarroako Gobernuaren gidaritzapean, toki-entitateak, gizarte-eragileak, gizarte-ekimeneko erakundeak eta ijito populazioa bera inplikatur, bai ekintzen prestalanetan, bai ondoren haiek garatu eta ebaluatzen"*⁹.

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiak, gainera, Europako beste herrialde batzuetatik etorritako ijitoak gizarteratzeko programa pilotu

bat sortzea aurreikusten zuen. Iruña eta Iruñerria izango lituzke jarduketa-eremu geografiko gisa, eta programaren helburu nagusia honako hau lortzea izango litzateke: *"populazio horrek laneratzeko baliabideak, osasun-arloko, gizarteratzeko eta hezkuntzako baliabideak eskuratu eta baliatzeko aukera hobetzea"*¹⁰.

Programa hori ezartzeko, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak Milagrosa-Arrosadia auzoko ijito errumaniarren diagnostiko bat eskatu zuten¹¹ eta diagnostiko horrek datu eta lan-ildo zehatzak azaleratu zituen. Horrela bada, Iruñeko Udalak laguntza teknikorako kontratu bat esleitu zion Munduko Medikuek elkarteari, Tokiko Gobernu Batzordeak 2021eko abenduaren 29an hartutako erabakiaren bidez, Arrosadia auzoan errumaniar jatorriko *spoitōris* taldeko ijito etniako populazioarekin esku-hartze soziokomunitarioarako programa gauzatzeko.

3. Txostenak kolektibo horri buruzko informazio kuantitatibo ezaren arrazoiak aurrerago aztertuko ditu.

4. Gobierno de Navarra. (2019). *Estrategia para el Desarrollo de la Población Gitana de Navarra (2019-2022)*.

5. Koine Aequalitas. (2020). *Diagnóstico social de la población gitana rumana en Milagrosa 2020*.

6. Gobierno de Navarra. (2019). *Estrategia para el Desarrollo de la Población Gitana de Navarra (2019-2022)*.

7. Gobierno de Navarra. (2019), 6. or.

8. Ídem.

9. Gobierno de Navarra. (2019), 51. or.

10. Ídem.

11. Koine Aequalitas. (2020). *Diagnóstico social de la población gitana rumana en Milagrosa 2020*.

02.

AZTERLANAREN ERREFERENTZIA- MARKOA ETA PRINTZIPIO GIDATZAILEAK

Hona hemen azterlana diseinatu eta garatzeko kontuan hartu diren erreferentziazko beste dokumentu autonomiko, estatal eta europar batzuk:

- 13/2023 Foru Legea, apirilaren 5koa, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzekoa.
- Ijitoen Berdintasunerako, Inklusiorako eta Partaidetzarako 2021-2030 Estrategia Nazionala.
- Arrazagatiko edo Etniagatiko Diskriminazioa Ezabatzeko Kontseiluaren 2021. Urteko Memoria, Espainiako Gobernuko Berdintasun Ministerioaren Biktimentzako Laguntza eta Orientazio Zerbitzuari buruzkoa.
- Europar Batasuneko Kontseiluaren 2021/C93/01 Gomendioa, 2021eko martxoaren 12koa, ijito populazioaren berdintasunari, inklusioari eta parte-hartzeari buruzkoa.
- Europar Batasunaren 2020ko ijitoei buruzko marko estrategikoa 2020-2030.

Ikus daitekeenez, ijitoen aurkako desberdinkerari eta diskriminazioari aurre egiteko marko orientatzailea zabala da. Haatik, hutsune handia dago populazio-sektore horretako komunitateen berezitasunei heltzean, *spoitōris* taldearen kasuan gertatzen den moduan. Hori dela eta, ezinbestekoa da ijito populazioa osatzen duten taldeen kultura-aniztasuna kontuan hartuko duen gizarteratzeko politika publiko eraginkor bat eraikitzea.

03. TXOSTENAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Txosten honen bidez, hasteko, Nafarroan bizi diren eta errumaniar jatorriko *spoitōris* kolektiboko ijitoen eskubideak errespetatzen, babesten eta bermatzen lagunduko duen tresna bihurtzea lortu nahi da.

Txostenak eskubide-urraketak jasotzen ditu, eta Nafarroan azken urteotan errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoentzat egindako estrategien eta ekintzen ezarpena aztertzen du, osasunaren, hezkuntzaren eta prestakuntzaren, enpleguaren eta tratu-berdintasunaren arloei erreparatuta.

Jasotako urraketak abiapuntu hartuta, politika publikoak hobetzeko hainbat proposamen egin ditugu, Nafarroako administrazioek eta erakundeek atzemandako eskubide-urraketak ezaba ditzaten eta Nafarroan bizi diren errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoen eskubideak errespetatzeko, bermatzeko eta babesteko betebeharrak betetzen lagun dezaten.

Norainokoari dagokionez, txostena Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019-2022ko Estrategian jasotako jarduketa-ildo estrategikoetan oinarrituta egin da. Ildo horiek Nafarroako ijitoen inklusioa errazteko konpromisoari erantzuten diote, eta horretarako jarduketa-marko transbertsala ahalbidetzen dute. Zehazki, 6.8. Ildoa, Europako

beste herrialde batzuetatik etorritako ijitoak, zeinaren 11. Helburu Estrategikoak "Europako beste herrialde batzuetatik datozen ijitoen gizarteratzea bultzatzeko" asmoa duen, hain zuzen ere, "*Europako beste herrialde batzuetatik etorritako ijitoek hezkuntzaren, gizarteratzearen eta osasunaren arloetako balibideak eskuratu eta baliatzeko aukera hobetzea*".

Txostenaren helburua ez da Estrategiak hezkuntzaren, enpleguaren, osasunaren eta tratu-berdintasunaren eta diskriminazioaren eta antigitanismoaren aurkako borrokaren arloetan jasotzen dituen helburu espezifiko guzti-guztien azterketa xehea egitea. Azterketarako lortutako informaziotik eratorritako jarduketarik esanguratsuenetan oinarritzen da azterlana, errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoen eskubideak urratzeko jardunbide eta egoera espezifikoari dagokienez.

Dokumentuak ez ditu Munduko Medikuek elkarteak Milagrosa-Arrosadia auzoko esku-hartze soziokomunitarioko programaren barruan egindako esku-hartzearen emaitzak ez eragina ebaluatzen. Gaur egun, Iruñeko Udalak kontratatutako programa horren emaitzen kanpo-ebaluazio bat egiten ari dira.

04. METODOLOGIA

Azterlanak metodologia triangeluarra edo triangeluazioa erabili du, hau da, fenomeno sozialen azterketa soziologikoa, kasu honetan, errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoek pairatutako eskubide-urrietak. Denzin-en definizioaren arabera (1970), bi teoria, datu-iturri eta ikerketa sozialeko metodoren edo gehiagoren konbinazioak fenomeno baten deskripzioa aberats dezake.

Ikerketa generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik garatu da. Horrela bada, tresna metodologiko hauek erabili dira:

BIGARREN MAILAKO ITURRIEN AZTERKETA

Bigarren mailako iturrien eta lotutako dokumentazioaren azterketa sakona egin da.

Lehenik eta behin, Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019-2022ko Estrategia sakontasunez berrikusi eta aztertu da. Estrategia hori obligazioen titularren (TdO), erantzukizunen titularren (TdR) eta eskubideen titularren (TdD) bidez lortutako lehen mailako iturriekin alderatu da.

Bibliografia atalean kontsulta daitezkeen beste iturri batzuk ere berrikusi dira.

GALDETEGIAK

Eskubideen betetze- eta eskuratze-maila jakin ahal izateko, lehenik eta behin, Nafarroako ijitoen Garapenerako Estrategiaren garapenean inplikaturako obligazioen titularrekin kontaktatu da. Ikerketan parte hartzeko prest zeudela baieztatu eta gero, hainbat galdera itxi eta irekiz osatutako galdetegi telematikoa bat helarazi zaie.

Kolektibo horren eskubideen aplikazioan inplikaturako 37 gizarte-entitate edo

erantzukizunen titularrei ere galdetegi bat igorri zitzaion.

Jarraian ikus daitezkeen 1. TAULAN, kontaktaturako obligazioen titularrak eta haien erantzukizun-eremuaren arabera galdetegian jorratutako gaia agertzen dira.

SASIEGITURATUTAKO ELKARRIZKETAK

Obligazioen titularrek galdetegietan emandako erantzunak aztertu eta gero, sasiegituratutako aurrez aurreko elkarrizketak egin dira jasotako informazioa areagotu eta gai batzuetan sakontze aldera.

TALDE TRIANGELUARRAK

Nafarroako errumaniar jatorriko *spoitōris* ijito ugari gizarte-bazterketa egoera larrian egoteak praktikan berekin dakar eskubideen titularrek beren autobabesa bilatzea, beren egoera ezkutatzuz eta beste pertsona batzuekin espazioak partekatze mesfidati agertuz. Hori dela eta, txosten honetarako tresnarik egokiena talde triangeluarra izan da.

Talde triangeluarretatik eratorritako diskurtsoa eta elkarrizketa pertsonaletan nahiz eztabaida-taldeetan sortzen dena oso bestelakoak dira. Elkarrizketa pertsonaletan sortutako diskurtsoetan funtzio adierazkorra eta eztabaida-talde bidez sortutakoetan funtzio metalinguistikoa nagusi diren bitartean, talde triangeluarretan sortutako diskurtsoetan funtzio fatikoa eta zeharkako erreferentziala nagusitzen dira¹². Errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoen kolektiboaren ezaugarri sozialak direla-eta hautatu da teknika metodologikoa hori, talde txikiek diskurtsoa errazten baitute.

Talde triangeluarretako parte-hartzaileak irizpide hauen arabera hautatu dira:

1. TAULA.

OBLIGAZIOEN TITULARRAK	AZTERGAIA
Gizarte Eskubideen Departamentua. <i>Gizarte Inklusiorako eta Gutxiengoei Arreta Emateko Atala.</i>	Enplegurako eskubidea. Tratu-berdintasunerako eskubidea, diskriminazioaren eta antigitanismoaren kontrako borroka.
Hezkuntzako Departamentua. <i>Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Atala.</i>	Hezkuntzarako eskubidea.
Nafarroako Enplegu Zerbitzua. <i>Gerentzia.</i>	Enplegurako eskubidea.
Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua. <i>Nafarroako Gazteriaren Institutua.</i>	Tratu-berdintasunerako eskubidea, diskriminazioaren eta antigitanismoaren kontrako borroka.
Nafarroako Osasun Zerbitzua. <i>Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzua.</i>	Osasunerako eskubidea.
Iruñeko Udala. <i>Gizarte Zerbitzuen, Ekintza Komunitarioaren eta Kirolaren Atala.</i>	Tratu-berdintasunerako eskubidea, diskriminazioaren eta antigitanismoaren kontrako borroka.

- Munduko Medikuek elkartearen programekin lotura duten pertsonak (bai iraganean, bai gaur egun).
- Ikerketan parte hartzeko borondatea.
- Gaztelaniaren erabilera funtzionala ahozkoan.
- Informazioa biltzeko ezarritako epean parte hartzeko aukera.

Taldeetan parte hartu duten pertsona gehienek konfiantzazko harremana dute ikerketa-taldearekin, Munduko Medikuek elkartearen lana ezagutzen dute eta, kasu batzuetan, prestakuntza- eta sentsibilizazio-tailerretan eta laguntza-taldeetan parte hartu dute.

Talde horiek osatzerakoan, zeharkako ardatz hauek hartu dira kontuan: sexua, adina, Espainian daraman denbora, egoera administratiboa eta gaur egungo bizilekua. Guztira, lau talde triangeluar egin dira: bi talde emakumeekin, bi gizonekin. (2. TAULA).

ALDERAKETA-METODO KONSTANTEA

Eskubideen titularrengandik lortutako kontakizunetatik abiatuta, diskurtsoan esanahia duten osagaiak bilatu dira. Parte-hartzaile horien diskurtsoaren datuak aztertu dira, eta obligazioen eta erantzukizunen titularrengandik lortutako informazioarekin alderatu dira, analisi-prozesuarekin amaitzeko.

12. Conde. (2008), 180. or.

2. TAULA. Perfil de las participantes.

1. TALDEA	ADINA	DENBORA ESPAINIAN	BIZILEKUA	EGOERA ADMINISTRATIBOA
Emakumea	31	13	Arrosadia	Irregularra
Emakumea	35	10	Etxabakoitz	Erregularra
Emakumea	25	12	Arrosadia	Erregularra

2. TALDEA	ADINA	DENBORA ESPAINIAN	BIZILEKUA	EGOERA ADMINISTRATIBOA
Emakumea	25	15	Arrosadia	Irregularra
Emakumea	17	5	Arrosadia	Irregularra
Emakumea	21	5	Arrosadia	Irregularra

3. TALDEA	ADINA	DENBORA ESPAINIAN	BIZILEKUA	EGOERA ADMINISTRATIBOA
Gizona	21	13	Arrosadia	Irregularra
Gizona	18	6	Arrosadia	Irregularra
Gizona	23	9	Ermitagaña	Irregularra

4. TALDEA	ADINA	DENBORA ESPAINIAN	BIZILEKUA	EGOERA ADMINISTRATIBOA
Gizona	28	16	Arrosadia	Erregularra
Gizona	24	3	Lezkairu	Erregularra
Gizona	52	13	Lezkairu	Erregularra

IKERKETAREN MUGAK

Kontuan hartu da kolektibo horrekiko dagoen estigma sozialak erantzunak baldintza zitzakeela eta, ondorioz, aztertutako fenomenoari erantzuteko eratorritako informazioa eta kategoriak. Hala, honako hauek hartu dira kontuan:

- Ohikoa da ijito errumaniarrek beren burua eskubideen titularrak diren subjektutzat ez hartzea, eta, zenbaitetan, bizitako eskubide-urraketak ez identifikatzea.
- Populazioa ijito etniako eta *spoitoris* taldeko kide gisa identifikatzeko daturik eta errolda ofizialik ez egotea.
- Administrazioetako, zerbitzuetako eta baliabideetako erreferentziazko pertsonetarako irispiderik ez izatea eta obligazioen titularrek erantzule diren urraketari buruzko azterlan batean parte hartzeko izan ditzaketen mesfidantzak.
- Aztertutako populazioak gaztelaniaz aritzeko dituen zailtasunak eta analfabetismo-indize handiak.

lido horretan, azterketa egiteko muga nagusia errumaniar jatorriko *spoitoris* ijitoei buruzko datu espezifikorik eskuratu ezin izatea izan da. Horrela, kontaktatutako erantzukizunen titular batzuek adierazi dute ezin dutela jakin lan egiten duten errumaniar populazioa *spoitoris* ijito talde etnikokoa den ala ez.

Eta kolektibo horren ehunekorik handiena Iruñean bizi dela uste bada ere, Agoitzen eta Tuteran bizi diren eskubideen titularrekin talde triangeluar bat egiten saiatu da. Pertsona horiek herri horietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez kontaktatu dira, baina azkenean ezinezkoa izan da taldea osatzea. Talde triangeluarretan parte hartu duten eskubideen titularrak Iruñeko lau auzotan bizi dira.

Ikerketa-prozesu honetan topatutako beste zailtasunetako bat azterlana egin den bitartean erakundeetako ekipoak eta arduradunen osaera aldatzearekin lotua dago, hauteskundeak egin eta berehala berritzen hasi baitziren maila autonomikoan zein udal-mailan.

05. INFORMAZIOA JASO ETA AZTERTZEKO SISTEMA

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiak zeharka aurreikusten du ijito populazioari buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko sistema bat sortzea, datu esanguratsuak lortzeko, desberdinkeriak aztertzeko eta datuak Nafarroako populazio osoaren datuekin alderatzeko, bai eta estatuko eta Europakoekin ere.

Datuak biltzeko sistema hori honako ildo estrategiko hauetarako aurreikusten da:

HEZKUNTZA

zehazki, hezkuntza-etapetako matrikulazioaren bilakaera, absentismoa, eskola-uzte goiztiarra, derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza eta emaitza akademikoak neurtzeko.

ENPLEGUA

langabezia-tasaren bilakaera, intentsitate handiko langabezia, behin-behinekotasun-tasa, partzialtasun-tasa, lan-harreman mota, ijitoek izaten dituzten enplegu-motak, ijitoek enplegu-programa orokor eta espezifikoez egiten duten erabilera edo errenta bermatua jasotzen duten etxeetan bizi direnek enpleguaren arloan duten egoera neurtzeko.

ETXEBIZITZA

infraetxeen, hondatutako etxebizitzaren, bereizitako kokaguneen eta ijitoek etxebizitza-programa orokor eta espezifikoez egiten duten erabilerearen bilakaera neurtzeko.

OSASUNA

eragin handiena duten osasunaren baldintzatzaile sozialei, ijitoek osasun-sistemaz egiten duten erabileri, haien osasun-egoerari, bizi-estiloari edo gaixotasunen prebalentziari buruzko datu esanguratsuak lortzeko.

Azterlanean parte hartu duten obligazioen titular guztiek nabarmendu dute datu bereizirik ez izateagatik oso zaila dela, batetik, ijitoen kolektiboa kuantifikatzea, eta, bestetik, haien gizarteratzea errazteko helburua duten politika publikoen benetako eragina neurtzea. Ijito populazio orokorrari eta, bereziki, errumaniar jatorriko *spoitoris* ijito populazioari buruzko datu bereizien falta hori izan da oztopo nagusietako bat Nafarroako Ijitoen Garapen Estrategiak aurreikusten dituen jarduketaren eragina aztertzeko orduan.

Gizarte Eskubideen Departamentuak nabarmendu du ez dagoela Estrategiaren abiapuntuari eta helmugari buruzko kalitatezko daturik; izan ere, ez dago ijitoen kolektiboari buruzko zifra estatistiko ofizialik, eta are gutxiago errumaniar jatorriko *spoitoris* ijitoei buruzkorik. Erroldarik ez egoteak zaildu egiten du emaitzen eta norainokoaren neurketa, eta ez du uzten kuantifikatzen populazio-sektore horretako zenbat lagunek jaso duten politika publiko bat, hala nola enpleguarena. Departamentuaren arabera, kolektibo horri buruzko ezagutza ijitoei laguntzeko programak dituzten hirugarren sektoreko erakundeek duten informazioari esker lortzen da.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ere dio enpleguari buruzko informazioak ez duela pertsonaren etniari buruzko daturik jasotzen, eta, beraz, ezin dela jakin zenbat ijitok izan duten sarbidea enplegu-programa edo -zerbitzuetara, edo horien bidez enplegurik lortu ahal izan dutenetz.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak azaldu duenez, osasun zerbitzuek komunitate etnikoen arabera daturik ez lortzeak ezinezkoa egiten du Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategian jasotako neurrien norainokoa neurtzea. Zerbitzu horren arabera, 2016an ijito populazioari buruzko inkesta bat burutu zen osasunaren arloan, eta 2023an beste bat egitea aurreikusten da. Hala ere, adierazi du ikerketa horiek ez dutela errumaniar jatorriko ijito populazioa barne hartzen.

Osasunaren, enpleguaren edo hezkuntzaren adierazle orokorretan bereizitako datuen gabezia horrek ikusezin bihurtzen du errumaniar jatorriko *spoitoris* ijitoen errealitatea, eta horrek berekin dakar, politika publikoetatik askotan erantzun egokirik ez ematea.

06. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiaren 6.4. Jarduketa-ildoak ijitoen osasun-egoera hobetzea eta osasun-arloko desberdintasunak murriztea du helburu. Eta, besteak beste, honako jarduera hauek jasotzen ditu: ijito komunitatearekin osasuna sustatzeko programa (PSCG); erabakitako eremuak mantendu eta zabaltzea; ospitaleko arreta eta arreta espezializatua indartzea; haurren arreta.

Ijitoen osasunaren bilakaerari dagokionez, Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiak barne hartzen duen diagnostikoak ijito populazioaren eta populazio osoaren artean osasunean dagoen berdintasun-eza argiro islatzen du. Azalpenetako bat "osasunaren baldintzatzaile sozialen eragina da, eta, batez ere, gizarteratzearen beste eremu garrantzitsu batzuetan, hala nola hezkuntzan, enpleguan, etxebizitzan, parte-hartzean, diru-sarreretan, ijito komunitateak pairatzen duen berdintasun-ezagatik"¹³.

Foru Erkidegoan, Nafarroako Osasun Zerbitzuak herritarren osasun-arretarako eta osasun-egoeraren bilakaeraren jarraipenerako eskubidea bermatu behar du. Azterlanaren emaitzek erakusten dutenez, errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoek osasun-arretarako eskubidea eskuratzeko oztopo handiak dituzte, batez ere euren administrazio-egoeratik.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak azpimarratu duenez, komunitate etnikoen arabera daturik ez eskuratzeko ezinezkoa egiten osasun-neurrien norainokoa neurtzea. Hala ere, 2016an ijito populazioari buruzko inkesta bat egin zen osasunaren arloan, eta 2023an beste bat egitea aurreikusten da. Edonola ere, adierazi du ikerketa horiek ez dutela errumaniar jatorriko ijito populazioa barne hartzen.

Hala, errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoen kolektiboak gainerako herritarrek bezala eskuratu du osasun-arreta, eta ez da eratzeko gainerako

biztanleengandik bereizten duen prozedura espezifikorik.

“ Osasunak unibertsaltasunaren ikuspegi hori baduenez, ez da arreta espezifikorik eman. Gainerako biztanleen modu berean eskuratzen da. [...] Ez dago programa zehatzik.

Obligazioen titularra

Alabaina, Nafarroan, 1987az geroztik, Ijitoen Osasuna Sustatzeko Programa dago, Nafarroako Ijitoen Garapen Estrategian aipatzen dena. Programa horrek zubi eta erreferente gisa funtzionatzen du ijito populazioaren eta osasun-zerbitzuen artean. Programak ijitoen kolektiboaren osasuna sustatzen duten pertsonak ditu, guzti-guztiak jatorri espainiarrekoak.

Azterlanak ezin izan du egiaztatu errumaniar jatorriko *spoitōris* pertsona edo familia ijitoak programa horren onuradun izan direnik. Are gehiago, Munduko Medikuek elkarteak komunitate horretako bi emakume errumaniarri lagundu zien 2018an prestakuntzan programako osasun-agente gisa parte hartzeko ahaleginean, eta ezinezkoa izan zen.

Jarraian, errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoei buruzko ikerketan hauteman diren osasunerako sarbide-oztopo nagusiak aztertuko dira.

EUROPAKO OSASUN-TXARTELA

ESKATZEA ETA OSASUN-LAGUNTZARAKO ESKUBIDEA ERRUMANIATIK EZ ESPORTATU IZANA EGIAZTATZEKO ESKAKIZUNA

Nafarroako errumaniar jatorriko *spoitores* ijito gehienek ez dute atzerriko identifikazio-zenbakirik edo AIZrik; beraz, pasaporte eta Errumaniako nortasun-agiria da haien duten dokumentazioa. AIZ baduten errumaniar ijitoek ez dute zailtasunik izaten Nafarroako Osasun Sistemara irispidea izateko. Hala eta guztiz ere, halakorik ez dutenek bi oztopo izan ohi dituzte: batetik, Europako osasun-txartela izapidetu izana, eta, bestetik, Errumaniatik igorritako dokumentu bat eskatzea, *“osasun-laguntzarako eskubidea esportatu ez izana”* egiaztatzen duena.

“...oso gutxi etortzen dira haien herrialdeko osasun-laguntzarekin eta oso-oso urriak dira handik laguntza izanik etortzen direnak.

Obligazioen titularra

Lehenengo kasuan, administrazioak Europako osasun-txartela izapidetzea eskatzen die Foru Erkidegoan bizi diren errumaniar nazionalitateko pertsonen, nahiz eta Espainiako lurraldean aldi baterako egonaldiak egiteko soilik aurreikusita dagoen. Beraz, eskakizun hori ez dator bat erreferentziatzko araudiarekin, eta egoiliarrek Nafarroako Osasun Sistemara sarbidea izateko duten eskubidea urratzen du.

“[...] Europako osasun-txartela eskatzen zaie, eta hortxe dago lehen arazoa. Fakturatu behar delako [...] txartela izapidetzerako OINera etortzeko esaten zaie... OINen itxaron-zerrenda dago, noski... kosta egiten da. Bulgaria eta Errumania Europako bi herrialde dira [...] eta, zehazki, askotariko arrazoiengatik Europako txartela eskatzeari uko gehien egiten dioten herrialdeak dira.

Obligazioen titularra

Bigarren kasuan, jatorrizko herrialdeak osasun-arreta jasotzeko eskubidea esportatu ez izanaren ziurtagiria eskuratzeko, errumaniarrek formulario bat bete behar dute errumanieraz, dagokion Errumaniako administrazioa bidaltzeko (eskubideen titularra jaio den eskualde jakin

bakoitzera) eta dokumentu horren erantzuna jaso arte itxoin behar dute.

Izapide hori Errumaniako administrazioaren web-plataformetan egin behar da, eta, beraz, ezagutza informatikoak eta errumanieraren ezagutza behar dira. Kolektibo horretako oso pertsona gutxi dituzte horretarako ezagutzak eta trebetasunak, eta, ondorioz, itzultzaile eta bitartekari errumaniarren lana ezinbestekoa da. Horri gaineratu behar zaio, kasu batzuetan, Errumaniako eskualde-administrazioen erantzuna hainbat aste eta hilabeteren buruan irits daitekeela, eta batzuetan dokumentua ez dela inoiz iristen. Horrek esan nahi du eskubideen titularra “osasun-laguntzaz gabetutako pertsona” gisa agertzen dela Nafarroako Osasun Sistemara, eta kasu askotan larrialdi-zerbitzuetan eta osasun-zentroetan ematen den zerbitzua fakturatzen zaiela.

“Esan nizan nire seme txikiak bihotzeko gaixotasun bat duela eta noizean behin artatzen dutela, baina ezin izango ditugu osasun-txartelak eduki Errumaniako paper bat lortu arte.

Eskubideen titularra

“[...] legea aldatu zen; izan ere, atzerritarrak garenez, semearen baja eman zidaten txartelean, Errumaniatik paperak ekarri behar nituelako, eta nik ez nekien.

Eskubideen titularra

Uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretuak, Osasun Sistema Nazionalerako sarbide unibertsalari buruzkoak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea aldatzen du, Espainian legezko bizilekua Espainian ez duten atzerritarrak sistemara sartzeko. Dekretu horrek mekanismoak garatzen ditu eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezin den kasuetan jarduteko, errolda-ziurtagiria edo eskubidea jatorrizko herrialdeetik esportatu ez izanaren ziurtagiria kasu. Haatik, praktikan, Osasun Zentroetako Harrerako langileen ezagutza-falta eta kultura-, hizkuntza- edo prestakuntza-oztopoak direla medio izapide hori lortzea oso zaila da populazio horrentzat, gizarte-erakundeek eta ikerketa honetako ikerketa-taldeetan

13. Gobierno de Navarra. (2019), 33. or.

konsultatutako pertsonak adierazi dutenez. Beraz, gizarte-erakundeek laguntza ezinbestekoa da eskubidea gauzatzeko.

Administrazioek Errumaniarekin egin beharreko izapideen konplikazioen berri izan arren, eta zenbaitetan erantzunik ez badago ere, izapidea modu berean eskatzen jarraitzen dute, bestelako aukerarik edo konponbiderik eskaini gabe.

OSASUN-LAGUNTZA FAKTURATZEA

Aurreko egoeraren ondorioz, eta Osasun Txartel Indibidualik edo OTrik ez izateagatik, askotan larrialdi-zerbitzuek eta osasun-zentroetako arretak jatorriz errumaniarra den *spoitiris* ijitoei osasun-arreta fakturatzeko diete. Batzuetan, aldeztuak, ordaintzeko eskatu izan zaie Larrialdietan, eta ezin izan diotenez kasuan kasuko kantitateari aurre egin, ez dituzte artatu.

“**Nik behin azterketa mediko bat egin nahi izan nuen eta ezin nuela esan zidaten. Egin nahi banuen, aukera bakarra ordaintzea zela esaten zidaten. Errumaniatik zerbaitekarri behar dut, eta gero, horrekin OTla izapidetu ahalko didate. Orduan, ez naiz joan.** Eskubideen titularra

“**Bai, niri gertatu zitzaidan eta ordaindu behar izan nuen, bai [...] kolpe bat hartu zuelako (alabak) hezurren bat hautsi zuen [...] eta beno, ongi artatu zuten, baina azkenean ordaindu behar izan nuen. Ordaindu behar nuen eta ordaindu nuen.** Eskubideen titularra

Horri dagokionez, uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretuak, Osasun Sistema Nazionalerako irispide unibertsalari buruzkoak, osasun-arreta unibertsalerako eskubidea berreskuratu zuen hein handi batean, 16/2012 Errege Lege Dekretuak osasun-eskubidetik kanpo utzi baitzituen administrazio-egoera irregularrean zeuden atzerritarrak. Arau horren bidez, Espainiako estatuan dauden pertsona guztiei bermatu nahi izan zaie osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko eskubidea. Zioen azalpenean berriaz adierazten du Osasun Sistema Nazionalera ekitate- eta unibertsaltasun-baldintzetan sartzea pertsona ororen oinarritzeko eskubidea dela. Eskubide hori baliatzeko bermeak eta herritarren osasunaren

egiazko babesak are garrantzi handiagoa hartzen dute osasun-laguntza normalizaturik ez dutenak zaurgarritasun bereziko kolektiboak direnean, gizarte-bazterkeriaren mehatxupean egoteagatik, hala nola erregistratuta ez dauden eta Espainian bizitzeko baimenik ez duten atzerritarrak. Horrenbestez, errege lege-dekretu hori indarrean sartzearekin batera, Espainiako estatuan bizi diren pertsona guztiek eskubidea dute funts publikoen kargura osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko, eta, beraz, lurraldean bizi diren eta egoiliar baimendu gisa erregistratuta ez dauden atzerritarrek ere bai.

Horrek esan nahi du gure erkidegoan bizi diren errumaniar ijitoek, nahiz eta AIZrik ez izan, Nafarroako Osasun Sistemari sartu behar dutela, eta ez dutela kostu gehigarririk izan behar. Hau da, behar duten osasun-arreta jaso behar dute, eta ezin zaie arreta hori fakturatu.

HIZKUNTZA-ETA KULTURA-OZTOPOAK

Nafarroako Osasun Zerbitzuak bitartekaritza-, laguntza- eta itzulpen-zerbitzu bat aurreikusten du, Gurutze Gorria edo Ijitoen Idazkaritza Fundazioa gizarte-erakundeek bitartez, baina bitartekaritza kulturalak; o zerbitzu hori ez dago egokituta errumaniar jatorriko spoitiris ijitoen hizkuntza- eta kultura-premietara.

Zerbitzu batzuek bitartekari errumaniarrak dituzten arren, administrazioak, oro har, ez daki Errumaniako spoitiris ijito komunitatearen hizkuntza erromania dela, eta ez errumaniera. 2021etik aurrera Nafarroako Gobernuak hainbat zerbitzutan sustatzen hasi zen aldi bereko telefono bidezko itzulpen-zerbitzuaren erabilera ere ez dago orokortuta.

“**Bai, itzulpena aurreikusita dago, Gurutze Gorriaren bidez. Eta bitartekaritza eta laguntza, eragileen eta entitateen bidez.** Obligazioen titularra

“**Nire senarra medikuarenera joaten denean nik (telefonoaren) bozgorailutik hitz egin behar dut. Berak esaten duena medikuari itzultzen diot eta alderantziz. Administrazioarekin harremanetan jartzen denean itzulpena behar du.** Eskubideen titularra

Bestalde, kulturarteko bitartekaritza-figuren ekarpenek ezin diote soilik hizkuntzari erreparatu, haiengana iristea eta gai mediko eta sanitarioak ulertzea ahalbidetzen duten gako kulturaleri ere erreparatu behar diete. Beraz, beharrezkoa da errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoen errealitateekin eta premiekin bat datozen eta haietara egokitutako kulturarteko bitartekaritza-figurak egotea.



Ez, ez dituzte ulertzen (jarraibide edo azalpen medikoak). Ez dituzte zertan ulertu ez badugu hezten (eta uler ditzaten ahalbidetzen ez badugu), [...] komunikazioa oso zaila da. Eta bai, behin eta berriro egin behar da, deitu egin behar da [...] gainerakoekin baino askoz gehiago saiatu behar da”

Obligazioen titularra

Era berean, ezinbestekoa da Nafarroako Osasun Sistemak bere onargarritasunean lan egitea, Administrazio Publikoaren hobekuntza-tresna gisa, populazio horren osasunerako eskubidea bermatu eta horretarako baliabide egokiak eta beharrezkoak gai ditzan.

Hori lortzeko, beharrezkoa da, halaber, profesional sanitarioen eta soziosanitarioen prestakuntza sustatzea, errumaniar jatorriko ijitoen kolektiboaren gako kulturalak barne hartuko dituen kulturarteko ikuspegi batetik. Obligazioen titularrengandik eskuratutako informazioaren arabera, oso modu puntualean baino ez da egiten.

07. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Hezkuntzaren arloan, Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiak 4 helburu estrategiko ditu: Haur Hezkuntzan eskolatutako ijitoen ehunekoa handitzea; ikasle ijitoek Lehen Hezkuntzan duten arrakasta akademikoa handitzea; ikasle ijitoek Bigarren Hezkuntzan duten arrakasta akademikoa handitzea; ikasle ijitoek Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoren duten arrakasta akademikoa handitzea.

Jasotako emaitzetatik abiatuta, txostenak adierazten du, zehazki errumaniar jatorriko *spoitōris* ijito populazioaz ari garenean, hezkuntzarako irispidea eta hezkuntza-ibilbide emankorrak sustatzeko eta bultzatzeko gaitasuna dira oraindik ere betetzeko dauden zereginak direla.

LEHEN HEZKUNTZAKO ESKOLATZE-TASA

Oro har, eta Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategian jasotzen diren Espainiako ijitoei buruzko datuen arabera, ikasle ijitoen Lehen Hezkuntzako eskolatzetasa biztanleria osoarenaren parekoa da. Haatik, Haur Hezkuntzan desberdintasun-arrakala handia ikusten da oraindik ere: 3 urterekin, haur guztien % 96 eskolatuta dago, eta ijitoen artean, berriz, ehunekoa % 62,7ra baino ez da iristen. Hezkuntzako goi-mailako etapetarantz aurrera egiten den heinean, ehuneko horiek gora egiten jarraitzen dute. Ikasle ijitoen % 64 ez da DBHn graduatzen¹⁴. Maila altuagoko hezkuntza-etapetara aurrera egin ahala, ehuneko horiek goranzko bidean jarraitzen dute. Ikasle ijitoen % 64 ez da DBHn graduatzen¹⁵.

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiaren helburua haur ijitoen eskolatzet-ehunekoa handitzea eta kopuruak biztanleria orokorraren ehunekoarekin parekatzea da. Errumaniar jatorriko ijitoen kolektiboarentzat adierazle berberak lortzea planteatzen du.

Ehuneko horiek neurtzeko lehenengo arazoa datu bereizirik ez egotea da. Hezkuntza Departamentuak ez daki errumaniar jatorriko *spoitōris* ijito etniako zenbat haur dauden matrikulatuta lehenengo hezkuntza-etapan; izan ere, berriro ere, ez dago oro har ijitoen kolektiboaren bolumenari eta premia espezifikoiei buruzko datuak biltzeko mekanismorik ez sistematzaziorik.

Azterlan horretatik jasotako informaziotik ondorioztatzen da 0-3 urte bitarteko hezkuntza-etapan ez dagoela errumaniar jatorriko *spoitōris* haur ijitorik eskolatuta. Adin-tarte horretan ez dago eskolatzet-kasurik. Ezagutzen den saiakera bakarra ama gazte baten kasua da, bere alabarentzako eskolatzet-eskabidea egin baitzuen, hark prestakuntza-ikastaro bat egiteko aukera izan zezan. Haren eskabidea ez zen aintzat hartu, ez zegoelako posturik, eta emakumeak prestakuntza utzi behar izan zuen, ezin baitzion aurre egin ikastetxe pribatu batean matrikulatzeak eragiten zituen gastuei.

3-6 urteko eskola-etapako egoerak, ordea, datu desberdin batzuk islatzen ditu. Adin-tarte horretan ez eskolatzet-ohikoa bada ere, familien ehuneko batean seme-alabak % 100 eskolatu dira. Milagrosa-Arrosadia auzoan esku-hartze soziokomunitarioko programaren bidez laguntza intentsiboa jaso duten familiak dira. Eskolatzet-hori lortzeko, giltzarritzat jotzen da familietako kide helduak etapa horretan eskolatzet-ak duen garrantziari buruz sentsibilizatzekeo lana, ondorengo derrigorrezko hezkuntzarako abiapuntu eta oinarritzko ezagutzak eskuratzet-keo puntu gisa.

SAREKO LANA. SEKTOREKO ERAKUNDEEK HAUR-ESKOLEN, IKASTETXEEN, GIZARTE-ZERBITZUEN ETA ABARREN ARTEKO SARE-LANEAN PARTE HARTZEA, ESKOLA-SUSTATZAILEAREN FIGURAREKIN

Hezkuntza Departamentuak adierazi du ez dagoela Nafarroako hezkuntza-sisteman eskolatutako errumaniar jatorriko ijitoen bolumena neurtzeko berariazko mapaketa edo erroldarik. Ikastetxe bakoitzean errolda-tresna bat dago zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak detektatzeko, jatorri etnikoa edo etorkia edozein dela ere. Kasu bat hautematean, ikastetxea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinatzen da adingabearen eta haren familiaren egoeraren zaurgarritasunei buruzko txosten bat egiteko, horiek murrizteko ekintzak abian jartzeko asmoz.

“**Gizarte Zerbitzuek txosten bat egin dute dituzten urraketei buruz [...]. Orduan, ikasle-mota horrentzat, edonongoa dela ere, laguntza batzuk daude: jangela, eskola-materiala, ekipamendua, etab. Laguntza hori ikastetxeak eskatzen du eta laguntzeko modu bat da. Hori atal ekonomikoa izango litzateke. Gero, hezkuntza-laguntza izango litzateke.**

Obligazioen titularra

“**Bai, mapa bat dugu, baina ez eskola honetan ijitoak egiteagatik, baizik eta ikasle zaurgarrien errolda izateagatik, zeinaren barruan ijito populazioa dagoen. Hau da, ez da bereizketarik egiten [...] Noski, baina badago kolektibo horren ezaugarri berezi bat: absentismoa.**

Obligazioen titularra

Nafarroako jitoen Garapenerako Estrategiak, jarduera-ildo horretan, eskola-sustatzailearen edo bitartekari soziokulturalaren figura txertatzeko beharra jasotzen du, bereziki ikasle ijito babesgabeen kontzentrazio berezia duten ikastetxeei zuzendutako neurria, irakasleekin eta familiarekin laguntza- eta lan-ekintza guztiak aurrera eramateko aukera emango duena.

Hezkuntza Departamentuak jakinarazi du eskola-sustatzaileen funtzio nagusia eskola-absentismoari aurre egitea eta hura lantzea dela. Nolanahi ere den, ez da berariaz ijitoekin lan egitera bideratutako hezkuntza-figura bat, baizik eta, oro har, pertsona eta familia zaurgarriekin edo eskola-absentismoko arazoak dituztenekin. Bigarren Hezkuntzan eta lantegi-eskoletan ordutegi-malgutasuna (eskola-ordu gutxiago) edo curriculum egokituko programak (CEP) bezalako neurriak hartzen dira horretarako.

“**Orduan, zer egiten dugu guk absentismo-kasu horiek gertatzen direnean? Zuzenean egiten duguna hezitzaileen mekanismoa martxan jartzea da. Ikastetxeak jakinarazten digu, guri jakinarazten digu, ikasle bat ez dela ikastetxera joaten ari, eta, orduan, hezitzaile baten figura dago, bitartekotza egiten saiatzen dena, familiarekin hitz eginez eta estrategia pedagogikoen bidez, ikasle hori klasera itzul dadin.**

Obligazioen titularra

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeekin, familiarekin eta beste gizarte-baliabide batzuekin lan egiteko eskaintzen dituen figura profesionalak dira eskola-sustatzaileak, adingabe guztiek hezkuntza-sistemaren barruan ahalik eta modurik onenean jarraitu ahal izan dezaten. Alabaina, Nafarroako ikastetxe guztiek ez dute horrelako figurarik; izan ere, deialdien mende daude, eta udalek aurkezten diote eskaera Nafarroako Gobernuari beren lurraldean hezkuntza-baliabide horiek eskuratzeko.

Orokorra ez bada ere, eskubideen titularrek figura horiek ezagutzen dituztela eta hainbat unetan erabili dituztela baieztatzen dute.

“**Eta urteak dira eskolan jada ez dagoela eskola-laguntzarik. Astean behin Gurutze Gorrira bidaltzen zaituzte.**

Eskubideen titularra

14. Gobierno de Navarra. (2019), 13. or.

15. Ídem.

“ **Niri nire bi txikiekin egokitu zait. Txikienak bullying-arazo bat zuen ikaskide batekin, eta konpondu da. Eta alaba zaharrenarekin irakasleekin izandako arazo bat izan zen, harekin oso hotzak ziren eta. Eta hari esker [eskola-sustatzailea] eskolara bidaltzea lortu dugu, txikia eskolara laguntzen zuelako eta irakasleekin hitz egin zuelako [...] esperientzia ona izan da.**

Eskubideen titularra

Edonola ere, biztanleria orokorrari bideratutako baliabideak aktibatzen dituzten neurriak dira, ez bereziki ijito kolektiboari, eta are gutxiago *spoitōris* taldeari. Halaber, ez dago eskola-sustatzaile ijitorik.

“ **Ijito prestatu gisa, ez dugu. Kasuren bat izan dugunean, La Majarí elkartera jo dugu. [...] Baina ez dugu profil hori, kasu honetan ijitoa, duen figurarik.**

Obligazioen titularra

Hezkuntza Departamentuan ez da kulturarteko bitartekotzarik behar izanaren kasurik jaso errumaniar jatorriko ijito populazioarekin lotutako kasuetan.

“ **Behar ez, baina agian ongi etorri izanen zitzaigukeen, bai. Afrikako familiaren baten kasuan bai behar dugula, baina gauzak orain dauden moduan, komunitate horren barruan ez dugu arazorik izan edo ez da problematika hori sortu.**

Obligazioen titularra

“ **Ez dugu inoiz jaso errumaniar ijitoak zaurgarritasun-egoeran edo gutxi integratuta daudenik. Ez dago kolektibo horri buruzko frogarik. Gehiago isilarazten den kolektiboa da. Orduan, datu hori ere falta zaigu.**

Obligazioen titularra

Azterlanak egiaztatzen du errumaniar jatorria duten *spoitōris* ikasle ijitoek berezitasun espezifikoak dituztela, hala nola hizkuntza eta kultura-kodeak, eta horiei heldu behar zaiela, baina hezkuntza-sustatzaileen figurarekin ez direla berariaz jorratzen ari.

“ **Kultura-talka oso handia da eta ez dugu lortzen eskoletara erregulartasunez joan daitezen normalizatzea.**

Obligazioen titularra

“ **Arazo erantsi bat dugu, hain zuzen ere, bertako ijitoen eta Errumaniako ijitoen artean dagoen aldea. Nik ikusi dut alde nabarmena dagoela bi kolektibo horien artean, bertakoak integratuago daudelako. Errumaniar ijitoak zaurgarriagoak dira.**

Obligazioen titularra

Bestalde, errumaniar jatorriko familia ijitoek zailtasun handiak dituzte hezkuntza-arloko parte-hartze espazioetara iristeko. Alde batetik, ez dituzte ikastetxearekin eta irakasleekin komunikatzeko ohiko kanalak ezagutzen, hala nola Nafarroako Gobernuaren eskola-kudeaketarako EDUCA aplikazioa, eta ez dute horretarako behar besteko gaitasunik ere. Guraso horiek guraso-elkarteetan eta komunikazio-kanaletan duten parte-hartzea oso txikia da. Itzulpenak egiteko gai diren eta familia horiekin kulturarteko bitartekotza egiteko profesionalik ez egoteak eta familia horiei berariazko prestakuntzarik ez emateak harreman konplexuak sortzen ditu familia eta ikastetxeen artean.

Beste oztopo handi bat eskola-materialaren gastuei eta beste hezkuntza-premia batzuei aurre egiteko zailtasun ekonomikoa da.

“ **Eskola-liburuak behar nituen eta eskolara eta Iruñeko Udalera jo nuen materiala erosteko laguntza eske. Eta momentuz ez didate lagundu [...] ezin izan dugu materiala erosi.**

Eskubideen titularra

“ **Baina errenta [bermatua] duten pertsonentzat hori zailtasun bat da. Eskola honetan, erostea egokitzen zaizun materiala eta liburuak soilik, Lehen Hezkuntzan bederen, ia 500 eurora iristen dira familia batentzat. Eta errenta bermatua dutenek ezin diete gastu horiei aurre egin. Ezin dute hainbeste aurreztu, zeren bi edo hiru ume badituzte, zer? Eta ikastetxe publikoa da.**

Eskubideen titularra

ABSENTISMOA ETA ESKOLA-UZTEA

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiak islatzen du, 2017ko datuen arabera, Lehen Hezkuntzako ikasle ijitoen % 12k eta Bigarren Hezkuntzako ikasle ijitoen % 7k "absentismo handiko" indizeak zituela (hau da, eskolen % 20 baino gehiagora ez joatea). Era berean, jakinarazitako absentismo-kasuen % 67 inguru ikasle ijitoenak dira¹⁶, eta baliteke datu hori azpi-erregistratuta egotea eta ehuneko handiagoetara iristea. Errumaniar ijitoei dagokienez, ez dago datu-bilketa espezifikorik.

Hezkuntza Departamentuaren hitzetan, ijito kolektiboaren arazo edukatibo nagusietako bat absentismo-maila altua da.

“ [...] kolektibo horren ezaugarri berezi bat absentismoa da. Obligazioen titularra

“ Ijito etniako ikasle bat eskola batera doala dakigunean, badakigu huts egingo duela. Obligazioen titularra

Nafarroako Gizarteratzeko Plan Estrategikoak (2018-2021) egiten duen azterketan, absentismo hori eskola-sistema goiz uztearekin lotzen da¹⁷. Hezkuntza Departamentuak ikusi du ikasle ijitoek eskola uzteko arriskua duten etaparik kritikoena Bigarren Hezkuntza dela:

“ Arazoa Bigarren Hezkuntzan dago, Lehen Hezkuntzan baino gehiago. [...] Neska-mutil horiek institutura doazenean, zaharragoak dira, beren kulturaren arabera lan egiteko adina dute, eta neskak jada ezkon daitezke. Orduan, institutuan absentismoaren auzia txikiak direnean baino gehiago nabaritzen da. Institutuan hasten direnean, jauzi hori, DBHko 2. eta 3. mailako artekoa, da ikasturterik gatazkatsuen. 13 eta 15 urteen artean, oso handiak dira, eta derrigorrezkoa ez dena iristear daude. Obligazioen titularra

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiaren informazioaren arabera, Iruñeko Auzo Unitateetan artatzen diren errumaniar ijitoen ia % 80 analfabetoa da¹⁸.

Bestalde, azterlanari esker ikusi ahal izan da errumaniar jatorriko spoitoiris ijito gehien-gehienek ez dituztela Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaitu, eta ehuneko oso handi batek ez dituela Lehen Hezkuntzakoak ere bukatu, batez ere helduenen artean, eta bereziki emakumeen artean. Gizon baten kasua baino ezin izan da baieztatu, Errumanian egindako Batxilergoko titulua eta ondorengo informatika ikasketak lortu dituela baieztatzen duena.

Errumaniar jatorriko *spoitoris* ikasle ijitoen eskola-absentismoaren arrazoiak sistemaren funtzionamendua ez ezagutzea eta hezkuntza-arloarekin hartu-emanen aritzeko dituzten eredu kulturalak, batez ere gurasoenak, direla ikusi da.

Bigarren Hezkuntzan, ikasle horiek eskola uztea hertsiki lotua dago du hezkuntza-ibilbidean izandako absentismoarekin eta haien hezkuntza-errendimenduarekin. Gainera, azterlanari esker ikusi ahal izan da errumaniar jatorriko *spoitoris* ijito gehien-gehienek ez dituztela Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaitu, eta ehuneko oso handi batek ez dituela Lehen Hezkuntzakoak ere bukatu, batez ere helduek eta emakumeek. Gizon baten kasua baino ezin izan da baieztatu, Errumanian egindako Batxilergoko titulua eta ondorengo informatika ikasketak lortu dituela baieztatzen duena. Hauteman duenez, neska adingabeen eskola-uztearen bi kausa nagusi haurduntza goiztiarrak eta itundutako ezkontzak dira. Azken hori da, halaber, mutil adingabeek eskola uztearen arrazoi nagusietako bat.

Hala eta guztiz ere, ikusten da familia horiek gero eta garrantzi handiagoa ematen diotela seme-alabak eskolatzeko aukerari.

“ Ni ez nintzen eskolara joan, baina nire alaba onartu dute, eta inskribatu egin dut zerbait ikasteko aukera izan dezan. Nik ez nuen zorte hori izan gazteagoa nintzenean, baina nire alabak ikastea nahi dut. Garrantzitsua da. Eskubideen titularra

Ildo horretan, funtsezkoa da ikasle horien jarraipena egitea eta laguntzea hezkuntza-etapa guztietan, gerora gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak izan ditzaten.

¹⁶. Gobierno de Navarra. (2019), pág 15.

¹⁷. Gobierno de Navarra. (2017), pág 153.

¹⁸. Gobierno de Navarra. (2019), pág 16.

08. ENPLEGURAKO ESKUBIDEA

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiak 5. Helburu Estrategiko gisa ezartzen du enplegu normalizaturako irispidea sustatzea eta ijitoen lan-prekarietatea murriztea. Bere helburu espezifikoaren artean honako hauek daude, besteak beste: ijitoen langabezia-tasa murriztea; ijitoen lanbide-kualifikazioa hobetzea; enpleguaren arloko profesionalen artean kulturarteko eta aniztasunari arreta emateko gaitasunak garatzea.

Ijito populazioaren enplegu-egoerari buruz egin den azterlan berrienetako bat 2018koa da¹⁹, eta zera ondorioztatzen du: “*ijitoen langabezia-tasa % 52ra iristen da, eta hori oso bestelakoa da biztanleria nazional osoaren langabezia-tasaren kasuan (% 14,5)*”. Horrez gain, azterlanaren arabera, “*langabezia-tasa femeninoak maskulinoak baino nabarmen handiagoak dira*”. Azterketa konparatu horren beste datu adierazgarri bat honako hau da: “*DBHtik gorako hezkuntza-maila duten ijitoek biztanleria orokorraren antzeko probabilitatea dute enplegatuta egoteko*”; eta “*gurasoen hezkuntza-maila ere lan-egoeraren faktore erabakigarria da*”.

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiak ijitoei eragiten dieten eta enpleguaren arloan kontuan hartu behar diren beste arazo larri batzuen berri ematen du, hala nola azpienplegua, prekarietatea, asalarizazio-maila eskasa eta kualifikazio txikia. Horrez gain, ijitoen erdia baino gehiago enplegua lortzeko orduan diskriminatuta sentitu direla ohartarazten du.

Ikerketak ezin izan du jaso Nafarroako errumaniar jatorriko *spoitores* ijito kolektiboari eragiten dion okupazio-tasa, langabezia-tasa edo prekarietate-tasa zenbatesteko daturik. Beste behin, ildo horretan bereizitako daturik ez egoteagatik, ezinezkoa izan da zenbatespen estatistiko minimoa ere egitea. Hala ere, Munduko Medikuek elkarteak kolektibo horretako pertsonekin eta familiekin izandako lan-esperientzia kontuan hartuta, agerian geratzen da aipatutako tasa horiek askoz ere okerragoak direla kolektibo horrentzat.

Spoitores ijitoek lana lortzeko oztopo ugari eta handiak dituzte, eta, hortaz, Administrazioak ez du eskubide hori bermatzen, eta kolektibo horretako gizon-emakumeen laneratzea hobetzeko ekintzek ez dute emaitza zehatzik lortu oraingoz.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak adierazi duenez, Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategia planifikatzen ari zirenean bertan agerian geratu zen Nafarroako ijitoei buruzko datu gutxi eta adierazle fidagarririk ez egoteak sortzen zuten zailtasuna. Horrela, esaterako, enplegu-eskaeraren erregistroaren kasuan, datuen babesagatik, ez da eskatzailearen etniari buruzko informaziorik jasotzen. Horrenbestez, oso zaila da dokumentuak jasotzen dituen enpleguari buruzko jarduera-ildoen ezarpen-maila neurtzea.

Edonola ere, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dio Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategian jasotako zenbait jarduera estrategiaren gauzatze epean amaitu direla. Honako hauek izango lirateke: 1.- Sektoreko entitateek aktibazio-baliabideen berrantolaketa parte hartzea. 2.- GIESPO (Gizarte Inklusioaren eta Ekonomia Sozialaren Programa Operatiboa), GEPO (Gazte Enplegurako Programa Operatiboa) eta beste prestakuntza-estrategia espezifiko batzuk mantentzea. 3.- Prestakuntza- eta lan-baliabide orokorretarako sarbidea. Gazte Bermea Planerako sarbidea bermatzea. Proiektu okupazionalerako dirulaguntzak. 4.- Iruñean berariazko LEa mantentzea eta laneratzeoko enpresak indartzea eta 7.- Enpleguko eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntza. Erakundearen esanetan, bere eskumen-esparrutik at geratzen dira honako jarduera hauek: 5.- Lan arloko ekintzak sustatzea, eta 6.- Merkataritza ibiltaria eta hondakin solidoen bilketa babestea: Informazioa eta laguntza ematea erregularizazioa, finantzaketa eskuratzea, modernizatzea eta irisgarritasuna lortzeko.

Gainera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dio azken urteotan bi koordinazio-proiektu garatu

direla enplegu-baliabideen, gizarte-zerbitzuen eta hirugarren sektoreko entitateen artean. Lehenengoa, 2019an amaitu zen ERSISI, zeinaren helburua baitzen arreta emateko / enplegua aktibatzeke eredu berri bat diseinatzea eta frogatzea langabe zaugarrientzat, gizarte- eta enplegu-zerbitzuen esku-hartze koordinatuan oinarrituta. Bigarrena, AUNA da, Errenta Bermatua eta Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera azkarrago izapidetzeko proiektu pilotua. Prestazio horiek osatzeko, gizarte-arreta espezializatua eskaintzen zaie behar dutenei, 7.000 eta 8.000 lagun artean, kalkuluen arabera. Azkenik, enplegua lortzeko arreta integratua lantzen da enpresen laguntzarekin, Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren (CEN) eta lanpostuak eskaintzen dituzten Nafarroako enpresen inplikazioaren bidez.

Hala eta guztiz ere, badirudi neurri horietako batek ere ez duela ondorio positiborik izan errumaniar jatorriko *spoitores* ijito populazioarengan. Ildo horretan, horietako bakar batek ere ez dio erreferentziarik egiten enplegua eta lan-prestakuntza lortzeko oztopo nagusiari: administrazio-egoera. Eskubideen titularrek partekatutako bizipenek eta iritziek azpimarratzen dute atzerritarren nortasun zenbakia –edo AIZ– lortzeko oztopoak direla lan-merkatuan sartzeko eragozpenik handienak.

2012. urtera arte, EBko edozein estatu kideetako herritarrek eskubidea zuten Espainiako lurraldean 3 hilabetez baino gehiagoz bizitzeko. Eskubide hori Atzerritarren Bulegoan Atzerritarren Erregistro Zentralean inskribatzeko eskabidea aurkeztuz baliatzen zen, eta, eskabidea aurkeztearekin batera, esleitu zitzaien AIZa zuen erregistro-ziurtagiri bat ematen zitzaien berehalara.

Estatuko Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premia neurri buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretua aldatu zuen, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak Espainian sartzeari, askatasunez zirkulatzeari eta bizitzeari buruzkoa. Aldaketa horrek mugatu egin du Europar Batasuneko estatu kideetako pertsona nazionalen eskubidea, eta Atzerritarren Erregistro Zentralean inskribatzeko aukera eman die soilik besteren konturako edo beren konturako langileak direnei edo Espainian gizarte-laguntzarako zama ez bihurtzeko baliabide ekonomiko nahikoak dituztenei. Ondorioz, praktikan, AIZ lortzeko ezinbesteko baldintza alde

aurretik enplegu bat izatea da. Eta, AIZrik gabe, lana bilatu eta lortzea ikaragarri zaila da.

“ 13 urte daramatzat Espainian, eta zergatik ez dut AIZrik? Bada, orain dela zenbait urte nire gurasoek egin zuten, baina ez ziren niri ere egin behar zidatela ohartu, eta orain lege bat edo ez dakit zer jarri dute, eta ezin da AIZ egin lan-kontraturik gabe. Eskubideen titularra

“ ...Atzerritarren Bulegora joan naiz askotan eta lan-kontraturik gabe ezin dela esan didate, ezin da AIZ eman. Eskubideen titularra

Munduko Medikuek elkarrekin esku-hartzen duen Errumaniar jatorriko *spoitores* ijitoetako bakar batek ere ez du enplegu formal eta ordaindu bat lortzerik izan. Eta AIZ baduten horien kasuan, lortu duten lana, oro har, aldi baterakoa izan da, ABLEen bidez [aldi baterako enpresak] edo autonomo gisa, banaketa-plataformetan eta oso lan prekarizatuekin. Ildo horretan, benetako enplegu alternatiba bideragarri ez izatea erabakigarria da gizarte-bazterketa egoeran mantentzeari dagokionean.

“ Glovon lan egiten dut [...] autonomo-kuota oso altua da, 300-350 euro dira [...] azkenean laburpena egiten duzu eta ez duzu irabazten, ez duzu ordaindu behar duzuna irabazten [...] eta horregatik, zorra duzu Gizarte Segurantzarekin eta egunero goizeko 8etan deitzen dizute zure alabak lo daudenean. Eskubideen titularra

Errumaniar jatorriko *spoitores* ijito gehienek ez dute lan-esperientzia formalik izan. Gizonezko *spoitores* ijitoen jardura ekonomiko nagusia hondakin solidoen bilketa informala da. Pertsona batzuek zaborra biltzera eta eskean ibiltzera behartuta ikusi dute euren burua zenbait kasutan. Arestian esan dugun moduan, gizon gutxi lortu dute enplegu egonkor eta ordaindurik..

19. Estrategia Nacional para la Igualdad, Inclusión y Participación del Pueblo Gitano (2021-3030).

“**2010ean etorri nintzen. Hasieran, ez genuen ezer ere ez; zaborra jasotzen genuen bizirauteko.**

Eskubideen titularra

“**Ateratzen zaidanean lan egiten dut, txatarran, edo gizonen batek deitzen badit, gidari-lanak egiten ditut txatarra mugitzeko.**

Eskubideen titularra

“**Egonkorra ez. Sekula ez da egonkorra. Txatarra bilatzen dugunean, batzuetan dirua ere galtzen duzu, [...] herri batera joan eta gizon batekin egiten duzu topo. Bere etxetik jasotzen duzun txatarraren truke ordaindu behar diozu eta, azkenean, bada batzuetan galdu egiten duzu zeren eta gasolina botatzen duzu eta saltzera joan eta 50 kilo ateratzen zaizkizu, eta galtzen ateratzen zara, badakizu? Zeren zuk ez dakizu, ez duzu pisatzeko baskularik.**

Eskubideen titularra

“**Fabrikan, ABLEen [aldi baterako enpresak] bidezko lana izaten den moduan, egun solteetan. Hilabete honetan, adibidez, egun batean bakarrik deitu didate.**

Eskubideen titularra

Emakumeen artean ez da enplegu formal egonkorra lortu izanaren kasurik ezagutzen. Emakume batzuk, noizean behin, hondakin solidoak eta zaborra modu informalean biltzen eta eskean aritzen dira. Errumaniar jatorriko emakumezko *spoitōris* ijitoen lan nagusia etxean egiten da.

“**Nire kasuan, nik nahiago nuen lan egin, txatarran ibili baino. Ez dut gustuko. Mutilentzat, nik uste dut baietz, baina guretzat?**

Eskubideen titularra

Eskubideen titularrek enplegua lortu ahal izateko hautematen duten beste zailtasun handietako bat prestakuntzarik eta titulaziorik ez izatea da. Eta titulazioren bat baduten horiei lan-merkatuan sartzeko dauden baliabideei eta mekanismoiei buruzko informaziorik ez izateak eta merkatu horri buruz eta existitzen diren eta eskatzen diren

lanei buruz duten ezagutza urriak lan-merkatuan sartzeko eragozten die.

“**Nik hori oso ongi dakit, baina praktikarik [titulurik] ez duzenez, ezin duzu horretan lan egin.**

Eskubideen titularra

“**Hainbat ikastaro, diploma eta hori guztia dugu, baina ez dakigu nora jo lan horiek bilatzeko. Zuekin ikasten ari gara [...] lagun bagaitzakezue onar gaitzkeela dakizuen hainbat tokitara gurekin batera joaten.**

Eskubideen titularra

Pertsona horien administrazio-egoerak, halaber, galarazi egiten die enplegu-prestakuntza araturako aukeratarako sarbidea izatea. AIZrik gabe, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak soilik eskura ditzakete, eta hori 2022tik aurrera bakarrik. Oso eskaintza mugatua da, eta, oro har, lan prekarioena: obrako peoia, eskorga-gidaria, oinarritzko elektrizitatea, etab. Emakumeen kasuan, ez dago horrelako eskaintzarik.

AIZrik ez duten eskubideen titularren administrazio-egoerak baldintzatu egiten die, besteak beste, Prestakuntzako eta Enpleguko Programa Integraletara eta Lantegi Eskoletara sarbidea izatea. Prestakuntza horiek enpresetan praktikaldiak egitea barne hartzen dute, eta lan-merkatura modu zuzen eta zabalagoan sartzeko aukera ematen dute. Gizarte-entitateek eskaintzen dituzten prestakuntza-ikastaroak egiteko ere aipatutako dokumentua behar dute normalean. Edonola ere, egiaztatu da errumaniar jatorriko sei *spoitōris* emakume ijitok gutxienez egin dutela Iruñeko gizarte-entitatearen batek eskainitako ikastaro bat.

“**Ikastaroak, [...] gauza horiek egitea gustuko duzu, baina AIZrik ez baduzu, ezin duzu izena eman.**

Eskubideen titularra

“**AIZren kontua... zeren eta AIZrik gabe, gogaikarria da, badakizu? Ikastaro on batean ezin egoteak izorratzen zaituelako. Ikastaro on bat egiteaz ari naiz.**

Eskubideen titularra

Gizarte Eskubideak dio Nafarroan Gazte Bermea Plana dagoela, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez kudeatzen dena, eta helburu duela *okupatuta ez dauden eta hezkuntza- edo prestakuntza-sistemetan integratuta ez dauden gazte guztiek enplegu-, hezkuntza- edo prestakuntza- eskaintza bat jaso ahal izatea, ikastunaren prestakuntza edo praktikaldia barne, hezkuntza formal amaitu ondoren edo langabezian geratu ondoren*²⁰.

Edonola ere, badirudi plana ez dela helburu horiek erdiesten ari errumaniar jatorriko *spoitores* ijito gazteekin. Askori sarbidea galarazten zaie AIZrik ez izateagatik, betebeharreko baldintza baita. Gainera, baliabide horren berririk ez izateak ere plan horretara sarbidea izatea oztopatzen du. Nolanahi ere, Gazte Bermea Planean sartu diren eskubideen titularren esperientzia ez da baliagarria izan enplegua lortzeko.

“ Bera Gazte Bermean egon zen eta ez zitzaion lanik atera, ez zuten ikastarorik egitera ere bidali. ”
Eskubideen titularra

“ Gazte Bermea horrek zer esan nahi du? [...] Ideiarik ere ez. ”
Eskubideen titularra

Eskubideen titularren ordutegiak eta prestakuntza-ikastaroen ordutegiaren bateraezintasuna ere mahai gainean jartzen duten beste traba bat da. Usu, etxebizitza, elikadura, hezkuntza eta abarren premiak asetzeko sortzen diren gastuei aurre egiteko, jarduera informalen bidez lortu behar dituzte diru-sarrerak, eta jarduera horien ordutegiek prestakuntza-ikastaroenekin bat egiten dute. Haur txikiak zaintzen dituzten emakumeentzat, aukera hori are murriztagoa da.

“ Nik ez dut pisu bat niretzako, ulertzen? 800 euro ordaindu behar ditut eta soilik 200 euroekin geratzen naiz. Ez, nik ohe bat dut soilik. 300 euro, 350 euro ordaintzen ditut eta gainerakoarekin hilabete osoa eman dezaket. Baina beste batzuek, euren pisua duten lagun batzuek adibidez... ”
Eskubideen titularra

“ Batzuetan errentarekin ezin dituzu argia, ura eta alokairua, etxean behar dituzun gauzak ordaindu... ”.
Eskubideen titularra

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dio azken lau urteotan gizarte-erakundeek, Ijitoen Idazkaritza Fundazioak adibidez, kudeatutako hainbat programa garatu direla. Horietako bat Gizarte Inklusioaren eta Ekonomia Sozialaren Programa Operatiboa (GIESPO) da, ijitoentzako enplegarritasun-ibilbideak lantzen dituena. Edo lan-orientazioko 2. lotea, errenta bermatuaren jasotzaileei laguntza eta lan-orientabidea ematen diena.

Programa horiei buruz dagoen informazioak, berriro ere, ez du pertsonen etniari eta jatorriari buruzko daturik ematen. Horrenbestez, ez dago *spoitores* ijito kolektiboko kideren batek haietarako sarbidea izan duenaren berririk.

20. Ministerio de Trabajo y Economía Social. <https://www.sepe.es/HomeSepe/Personas/encontrar-trabajo/Garantia-Juvenil/que-es-garantia-juvenil.html#>

09. TRATU- BERDINTASUNERAKO ESKUBIDEA ETA DISKRIMINAZIOAREN ETA ANTIGITANISMOAREN AURKAKO BORROKA

Nafarroako Ijitoen Garapen Estrategiaren 8. Helburu Estrategikoak Nafarroako ijitoen tratu-berdintasuna, diskriminazio-eza eta antigitanismoa sustatzea du xede. Hona hemen helburu zehatzak: inoiz etniagatik diskriminatuta sentitu den ijitoen ehunekoa murriztea; berdintasunarekin lotutako eskubideak ezagutzen dituzten eta urratuak direnean zer baliabidetara jo badakiten ijitoen ehunekoa handitzea; diskriminatuta sentitu diren ijitoei orientazioa eta laguntza bermatzea; Nafarroako gizartean ijito-biztanleriarekiko diskriminazioa gehiago ikusaraztea.

Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategiak oinarri duen azterketaren arabera, komunitate hori da diskriminazio-prozesuak gehien pairatzen dituen Nafarroako gizartearen sektorea²¹. Adierazten duenez, hauek dira diskriminazio-eremu nagusiak: enplegua, etxebizitza, ondasunak-zerbitzuak eskuratzea, poliziaren tratua eta gizarte-komunikabideak. Gainera, diagnostikoak azpimarratzen du ijitoenganako diskriminazioak gizartean ikusgarritasun eskasa duela, eta hautemandako diskriminazio kasuetan biztanleria osoak ijitoekiko diskriminazioaren pertzepzioan dituen jarreraren bilakaera aztertzea aurreikusten du.

Bestalde, Arrazagatiko edo Etniagatiko Diskriminazioa Ezabatzeko Kontseiluaren 2021.

Urteko Memoriak, Espainiako Gobernuko Berdintasun Ministerioaren Biktimentzako Laguntza eta Orientazio Zerbitzuari buruzkoak jasotzen duenez, erregistratu diren arraza- edo etnia-diskriminazioagatiko eskubide-urraketen erdia baino gehiago ijitoenak dira.

Nafarroako errumaniar jatorriko ijitoen kontrako diskriminazioari buruzko berariazko azterlanik ez badago ere, esperientziak argi uzten du ijito espainolek baino etnia- eta jatorri-diskriminazioagatiko urraketa gehiago pairatzen dituztela.

Nafarroak arrazismoa eta xenofobiaren aurka borrokatzeko 13/2023 Foru Legea onetsi du aurtan. Lege horrek ijitoen jatorri etnikoagatiko diskriminazio modu zehatz hori jasotzen du, antigitanismoa deitzen duena, eta honela definitzen du: *“ijitoen kontrako arrazakeria mota espezifiko, arraza nagusitasunaren ideologian oinarritua, zeina gizagabetze eta arrazakeria instituzionalaren modu bat baita, diskriminazio historiko batek elikatua, besteak beste azaleratzen dena indarkerian, beldurraren diskurtsoan, esplotazioan eta diskriminazio modurik agerikoenean”*. Arauak administrazio publikoek bultzatu behar dituzten hainbat neurri jasotzen ditu, eskubide-urraketa horren aurka borrokatzeko.

Legea oraintsu onetsi denez gero, txostenak ez du neurri horien norainokoaren eta inpaktuaren azterketarik jasotzen. Haatik, azterlanak bai ondorioztatzen du, eskubideen titularren talde triangeluarretatik eskuratutako informaziotik abiatuta, pertsona horietako guzti-guztiek egunero bizi dituztela egoera eta tratu diskriminatzaileak, ez bada arlo guztietan, arlo gehienetan, adibidez, hezkuntzan, osasunean, enpleguan, etxebizitzan eta gizartearen.

Bestalde, ondorioztatu da eskubideen titularrek ez dituztela informatzeko edo diskriminazio-egoera horiek salatzen eskuragarri dituzten baliabideak ezagutzen. Ez da errumaniar jatorriko *spoitōris* ijito kolektiboko pertsona bakar batek ere ez du abusu-egoera bat salatu, euren egunerokoa bizi dituzten arren. Arlo guztietan ere diskriminazioa ez da berdina hautematen:

Hezkuntzaren arloan, eskubideen titularrek ez dute diskriminazioaren pertzepzio orokorturik, baina adierazi dute irakasleek eta gainerako ikasleen gurasoek diskriminatu dituztela sentituta dutela, bai haiek, bai haien seme-alabak.

“ Irakasleak oso hotz jokatzeko du nire alabarekin [...], baina ez guztiekin, eh? Kanpokoekin bakarrik. Ni atera joaten naiz harekin hitz egiteko eta ezin dut, tutoretza eskatu behar dudala esaten dit, baina nire alabaren lagun minaren ama, hemengoa dena, badoa, ordu erdiz hitz egiten du harekin atean, ez du tutoretzarik eskatu behar... ”

Eskubideen titularra

“ Bileretara joaten garenean sumatzen da. Sumatzen da emakume errumaniar pare bat garela hemen atzean, eta espainol guztiak han aurrean eserita. ”

Eskubideen titularra

Osasunaren arloan, populazio horrek hautematen duen diskriminazio-faktore nagusiak ez du hainbesteko loturarik atzerritar jatorria izatearekin edo haien jatorri etnikoarekin, baizik eta OTIaren titular izatearekin edo ez izatearekin.

“ Adingabea naizenez, ezin dut OTIa eskatu. OITarekin oso zaila da, kontsulta baterako edo zeozterako joan behar ”

dudanean, oihu egiten dizutelako eta ez dizutelako lagundu nahi, osasun-txartela ez dudalako.

Eskubideen titularra

“ Osasun-txartela duzunean, oso ongi tratatzen zaituzte; baina ez duzunean, ez zaituzte hain ongi tratatzen. ”

Eskubideen titularra

“ Badirudi gehiago baloratzen zaituztela zeure osasun-txartel propioa duzunean [...] Hau gure bezeroa da, bada sar dadila, badakizu? Eta gure bezeroa ez den honek, bada itxoin dezala. ”

Eskubideen titularra

Enplegurako sarbidean, errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoek adierazten dute diskriminazio bortitza eta orokortua hautematen dutela. Aurreko kapituluan ikusi da ia ez dagoela lanpostu formal eta egonkorra duen eskubide titularrik.

“ Ez duzu ezer ere egiten diplomarekin, nire eskorga-gidari karnetarekin, gero ez zaituelako inork ere kontratatzen. ”

Eskubideen titularra

“ Garbiketan, haurrak zaintzen eta horretan guztian lan egin dezakegu. Baina zure prestakuntza-maila berdina duen jendea dago eta emakume horiek hartzen dituzte, ez gu. ”

Eskubideen titularra

“ Lan-elkarrizketa batera joaterakoan? Ez dugu elkarrizketarik egiten, ez dugu inongo elkarrizketarik. Beraz, ezin dugu honi buruz ezer esan, inoiz ez garelako elkarrizketa batera iristen. ”

Eskubideen titularra

Nafar gizarteak oro har errumaniar jatorriko *spoitōris* ijito komunitatearekiko duen tratu diskriminatzailea oso bestela hautematen da.

21. Gobierno de Navarra. (2019), 44. or.

Zenbakaitzak dira pertsona horiek askotariko espazio publiko zein pribatuetara sartzeko aurre egin behar izan dieten diskriminazio-egoerak.

“ Hemen, Arrosadian, asko. Are gehiago, emakumeei olioia jarri zieten bankuetan, ez esertzeko. Eta hemengo auzokideak gurekin sartzen ziren. Adineko emakumeak umeengana joaten ziren bastoiekin, eta ez zieten jolasten uzten. Kexa pila bat, gaizki begiratzen gintuzten... ”
Eskubideen titularra

“ Bere amari iraungitako haragia saldu zioten, eta izugarrizko usaina zuen... eta bueltatzera sartu zenean, hemengo emakume batek, agure batek, esan zion: Zergatik ekarri duzu haragia? Zuek, ijito puta horiek, haragi honek baino usan okerragoa duzue. ”
Eskubideen titularra

“ Zure herrialdeagatik diskriminatzen zaituzte, errumaniarra zara, eta ijitoa. Eta beno, ijitoa izateagatik gehiago diskriminatzen zaituztela uste dut, badakizu? ”
Eskubideen titularra

“ Jendeak uste du haiengana hurbiltzen garenean lapurtzeko bakarrik dela. ”
Eskubideen titularra

“ Eta tabernetan ere badago [arrazakeria]. Hemen badago [spoitosis] ijitoak joan ohi ziren taberna bat, eta gero ez zieten joaten uzten. Tabako-makina ere kendu zuten, sar ez zitezten. ”
Eskubideen titularra

“ Supermerkatuan zailtasun batzuk egoten dira. Batzuetan hain gaizki begiratzen gaituzte... oso modu txarrean, ez dakit zergatik. ”
Eskubideen titularra

Eskubideen titularrek *spoitosis* kolektibo ijitoei tratu diskriminatzailea emateagatik gehien aipatu duten erankundeetako bat polizia izan da.

“ Badakite 13 urte daramatzadala Espainian eta esaten ari natzaio: aizu, ez dakit zein kaletan bizi naiz, hemen nagoela. Eta esaten didate: edo ordaintzen duzu edo ibilgailua kenduko dizut. Zuzenean hori da eta dirurik ez baduzu, ba ibilgailua immobilizatzen dizute. Bai, hori da, eta ez dakit zenbat aldiz gertatu den. Nazkatuta nago jada horrekin. ”
Eskubideen titularra

“ Polizia oso arrazista da. Kalean ikusten bagaitu, gogaitzen gaitu. Adibidez, nire anaiari kalean polizia batek zertan ari zen galdetu zion. Eta ez dakit nola gertatu zen, baina eskuak bizkarrean jarri zizkioten, horrela, bat batean, eta bere emaztea, ondoan, autoan, zegoela berehala joan zen defendatzera, eta makila horrekin jo zuten. Hankak more-more utzi zizkioten eta, noski, nire koinatuak defendatzeko bultzatu zituen, eta ziegara eraman zuten eta ospitalean ingresatuta egon zen ez dakit zenbat egun. ”
Eskubideen titularra

“ Atzerritarren Bulegoan, [gizarte-entitate batek] lagunduta joan naizenetan, primeran, egin behar nuen guztia eta oso argi azaltzen didate. Eta gertatu zait, astebete geroago edo, bakarrik joatea egokitu zaidala eta iritsi naizenean, bada ez nituen zenbait gauza ulertzen, nola zen galdetu eta oihuka hasi zitzaidan, eguna izorratu niola eta ez dakit zer esanez... ”
Eskubideen titularra

“ Nire senarra gauza bat erostera jaitsi zen [...] Jaitsi zenean, erretzen ari zen koltxoi bat aurkitu zuen zakarretan [...] sua itzaltzen saiatu zen [...] mutiko bat ondotik pasatu zen eta polizia eta suhiltzaileak deitu zituen, eta koltxoia berak erre zuela esan zuen [...] iritsi zirenean, errua berari bota zioten [...] Hainbat hilabete geroago, gutun bat iritsi zitzaigun epaitegira joateko [...] Epaitegian itzultzaile errumaniar bat eman diote, baina nire senarrak ez daki ez errumanieraz ez gaztelaniaz. Bere errua izan al zen galdetu ziotenean, ez zuen itzultzaile errumaniarraren galdera ulertu eta baietz ”

erantzun zuen. Irtetean, galdetu genion ea zergatik esan zuen hori, eta bera ez zen egindakoaz ohartu ere egin. 2.000 euroko isuna ordaindu behar izan genuen.

Eskubideen titularra

Etxebizitza bat alokatzean pairatzen dituzten jokabide diskriminatzaileak dira agian, arazo ekonomikoekin batera, errumaniar jatorriko *spoitoris* ijito kolektiboari ostatu duina izateko aukera galarazten dien arazo nagusia. Aldi berean, eskubideen titular bakar batek ere ez du adierazi jabe eta higiezinen agentzien jokabide horiek salatzeko eta haietatik babesteko mekanismoak ezagutzen dituenik.

“ Eta, amaieran, galdetzen dute: zer herrialdetakoa zara? Eta esaten dizute: Ah, nik errumaniarrei ez, ez diet alokatzen. Eta besteak: baina zergatik da txarra? Ez, ez, errumaniarrek ez duzuela ordaintzen, etxeak txikitzen dituzuela eta barruan geratzen zaretela.

Eskubideen titularra

“ Orain ezin duzu pisurik alokatu errumaniarra izanik ezin duzulako alokatu; inork ez dizu alokatzen, inork ere ez.

Eskubideen titularra

“ Utzidazue zuen [telefono] zenbakia, gero papera begiratu, errumaniarrak garena ikusi eta esaten du: utzidazue zuen zenbakia eta bihar deituko dizuet. Baina ez, bi hilabete baino gehiago igaro dira eta ez du deitu.

Eskubideen titularra

“ Etxebizitzarako eskubidea dugu. Ez digute alokatu nahi ez dugulako lan-kontratu finkorik. Behin agentzia batean galdetu zidaten AIZrik edo NANik ba ote nuen, ez dudala esan nien, eta deia moztu zidan.

Eskubideen titularra

Arlo horietan guztietan, eskubideen titularrek gizarte-entitateen laguntzan jarri dute azpimarra. Izan ere, laguntza hori funtsezkoa da euren eskubideen irispidea errazten dielako eta diskriminazio-egoeren aurrean eragozle gisa jarduten duelako.

Amaitzeko, nabarmendu beharra dago Nafarroako Ijitoen Garapen Estrategiak osasunaren, enpleguaren, lokaletarako eta espazio publikoetarako sarbidean eta komunikabideen arloetan hautemandako diskriminazio-kasuetan, biztanleria osoak ijitoekiko diskriminazioaren pertzepzioan dituen jarreraren bilakaera aztertzea aurreikusten duela. Administrazioek emandako erantzun bakar batek ere ez du baieztatzen errealitate horiek aztertzeko txosten edo azterlanik egin denik.

10. PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA

Profesionalen prestakuntza Nafarroako Ijito Garapenaren Estrategiak jasotzen duen beste jarduketa transbertsal bat da. Horrela bada, enpleguaren, gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloetako eta arlo soziosanitarioetako profesionalen berriazko prestakuntza ematea aurreikusten da, baita arlo juridikoko, gizarte-zerbitzuetako, gizarte-entitateetako zerbitzu polizialeetako eta komunikabideetako profesionalak tratu-berdintasunean eta diskriminazioaren aurkako borrokan prestatzea ere.

Estrategiak zehazten du, halaber, sustatuko dela irakasleen prestakuntza-planean ikasle ijitoekin eta haien familiekin esku hartzeari buruzko berriazko ikastaroak sartzea, eta ikastaro horiek genero-ikuspegia kontuan hartu beharko dutela. Orobat, berriazko prestakuntza emango zaie Haur Hezkuntzako (0-3 urte) eta arreta goiztiarreko zentroetako profesionalen. Prestakuntza horretan, guraso ijitoekin lan egiteko estrategia egokiaren gainean lan egingo da bereziki.

Munduko Medikuek elkarteak behin baino gehiagotan detektatu ditu errumaniar jatorriko *spoitores* ijito komunitatearen eskubide-urraketak, bai eta haien lekukotza egin ere, profesional batzuek komunitate horretako kideak modu diskriminatzailean edo errespetu gutxiz tratatzearekin lotuta. Bizitako gertakizunetan oinarritzen den Munduko Medikuek elkartearen ikuspegiak egiaztatzen du, oro har, populazio horrekin diharduten profesionalen prestakuntza-premia handia dutela euren kulturari buruzko gakoari, diskriminazioa eragiten duten kausei eta eragilei eta kolektibo horrentzako zaurgarritasun-egoerei dagokienean.

Ildo horretan, irakasleak ezinbesteko eragileak dira populazio horretako haurrak gizartera

daitezen eta aukera-berdintasunean eta oztoporik gabeko prestakuntza jaso dezaten. Munduko Medikuek elkarteak baieztatu du zenbait ikastetxetan, Paderborn-Lezkairu eskola publikoan esaterako, ikasle ijitoekin lan egiten duten irakasleentzako lan-prestakuntza puntuala gauzatu dela, baina oso orokorra eta nagusiki eskola-saioetan ijito herriaren historiari buruzko unitate didaktikoak lantzerantz bideratua. Aitzitik, ez dago *spoitores* ijito herriaren historiari eta kulturari buruzko irakasleentzako prestakuntzarik egin izanaren berririk.

Munduko Medikuek elkarteak berriazko prestakuntza eskaini die poliziaari, Milagrosa-Arosadiako auzo-unitateari eta osasun-etxeari eta etorkizunean profesionalak izango diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleei. Ez dago profesionalen *spoitores* ijitoen buruzko beste prestakuntzarik egin izanaren berririk.

Horregatik guztiagatik, premiazkoa da biztanleriaren sektore horrekin harremanetan dagoen eta harekin lan egiten duten Administrazio Publikoko profesionalen prestakuntza-eskaintzan *spoitores* ijito herriaren aniztasun kulturalari buruzko berriazko prestakuntza eskaintzea, bai eta osasunerako, hezkuntzarako, enplegurako eta tratu-berdintasunerako eskubideak eta diskriminazioaren kontrako borroka berriaz lantzea ere.

11. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

ONDORIOAK

Ijitoek mendeetan Europako aberastasun kulturean, aniztasunean, ekonomian eta historia komunean lagundu badute ere, komunitate horretan desberdinkeria eta bidegabekeria larriak daude oraindik biztanleria orokorraren aldean. Orobat, ijito populazioaren ehuneko handi bat diskriminazioaren, intolerantziaren eta gizarte-bazterketaren biktima da oraindik.

Errumaniar jatorriko *spoitris* ijitoei herritartasun osoa eskuratzea eragozten dieten egiturazko faktoreak are konplexuagoak dira. Etnia, generoa, desberdintasun sozial eta ekonomiko estrukturala ez ezik, atzerritartasuna ere funtsezko diskriminazio-faktorea da.

Nafarroako Gobernua eta beste erakunde batzuk ere errumaniar jatorriko ijitoek Foru Erkidegoan bizi duten errealtate horien jakitun dira. Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019-2022ko Estrategiak modu aitzindari jorratu zuen ijito populazioaren aurkako diskriminazioa, eta dokumentuak ibilbide-orri bat osatzen du hainbat arlotan, osasunarenean, hezkuntzarenean, enpleguarenean edo tratu-berdintasunean, besteak beste, populazio horri eragiten dioten desberdinkeria murritzeko.

Hori hala izanik ere, azterlan honek errumaniar jatorriko *spoitris* ijitoen aurkako diskriminazio-faktore larriagoak

identifikatzen ditu, baita oztopo bereziak ere zenbait eskubidetarako irispidean; haien artean, osasunean, hezkuntzan, enpleguan eta tratu-berdintasunean eta diskriminazio-ezan. Etengabeko diskriminazioak, antigitanismoarekin eta gizarte-bazterkeriarekin batera, arlo horietan eskubideak baldintza eta aukera berdinetan eskuratzea galarazten die *spoitris* ijitoei.

Ez dago oro har ijitoei eta zehazki errumaniar jatorriko *spoitris* ijitoei buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko sistemarik. Osasunaren, enpleguaren edo hezkuntzaren adierazle orokorretan bereizitako daturik ez egote horrek *spoitris* ijitoen errealtatea ikusezin bihurtzen du; eta horrek berekin dakar politika publikoek askotan ez dutela erantzun egokirik ematen. Halaber, beharbada, horrek ere esan nahi du kolektibo horrekin lan egitea ez dela lehentasunezkoa.

Errumaniar jatorriko *spoitris* ijito populazioari buruzko ezagutza ijitoei laguntzeko programak dituzten hirugarren sektoreko erakundeen informaziotik lortzen da nagusiki.

Atzerritarraren Nortasun Zenbakirik (AIZ) ez izatea da *spoitris* ijitoek euren eskubideak baliatzeko duten oztopo handienetako bat. Nafarroan bizi diren pertsona horietako gehienak Errumanian jaiotakoak dira, eta herrialde hori Europar Batasuneko kide da. Hala ere, Espainian dokumentazioa

erregularizatzeko prozesua abiatzeko mekanismoa oso konplexua eta mugatua da. Horrek zaugarritasun handiagoan jartzen ditu *spoitōris* herritarrek.

AlZrik ez duten errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoek bi oztopo dituzte osasun-sisteman sartzeko: bata, Europako osasun-txartela izapidetzeko eskakizuna, eta, bestea, Errumaniatik igorritako dokumentu bat eskatzea, "osasun-laguntzarako eskubidea esportatu ez izana" egiaztatzen duena. Horrek esan nahi du eskubideen titularra "osasun-laguntzaz gabetutako pertsona" gisa agertzen dela Nafarroako Osasun Sisteman.

Espainiako Estatuan bizi diren pertsona guztiek eskubidea dute funts publikoen kontura osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko; horrenbestez, lurraldean bizi diren eta egoiliar gisa erregistratuta ez dauden atzerritarrek ere bai. Baina, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezin duten atzerritarrek osasungintzara sarbidea izateko mekanismoak egon badauden arren, praktikan, osasun-zentroetako harrerako langileek ezagutzarik ez izateak, kultura-, hizkuntza- edo prestakuntza-oztopoekin batera, OTIa eskuratzea populazio horrentzako izapide ia eskuraezin bihurtzen du. Horrela bada, gizarte-erakundeen laguntza ezinbestekoa da osasun-laguntzarako eskubidea gauzatzeko.

Aurreko egoeraren ondorioz, kasu askotan fakturak igortzen dira larrialdi-zerbitzuetan eta osasun-zentroetan artatuak izateagatik. Gure erkidegoan bizi diren errumaniar jatorriko ijitoek, nahiz eta AlZrik ez izan, Nafarroako Osasun Sistemarako sarbidea izan behar dute kostu gehigarririk gabe. Bestela esanda, behar duten osasun-arreta jaso behar dute eta ezin zaie arreta hori fakturatu.

Gainera, Nafarroako Osasun Sistemak bere onargarritasunean lan egin behar du, populazio horren osasunerako eskubidea bermatu eta horretarako beharrezkoak diren baliabide egokiak gaituko dituen hobekuntza-tresna gisa.

Hezkuntzarako sarbidea eta hezkuntza-ibilbide emankorrak sustatu eta bultzatzeko gaitasuna errumaniar jatorriko *spoitōris* ijitoentzako egiteko dauden zereginak dira oraindik ere.

Hezkuntzaren arloan ez dago berariaz ijitoei eta, are gutxiago, *spoitōris* taldeari bideratutako baliabideak aktibatzen dituen neurririk, ikastetxeekin, familiekin eta beste gizarte-baliabide batzuekin lan egin eta kolektibo horiek eskolatu eta hezkuntza-sistemaren barruan jarrai dezaten daitezen mesedegarriak izango direnak.

Errumaniar jatorriko *spoitōris* ikasle ijitoek ezaugarri bereziak dituzte, gaur egun heltzen ez zaie arren, aintzat hartu behar direnak, hala nola hizkuntza eta haien kultura-aniztasuna. Ikasle horiei hezkuntza-etapa guztietan jarraipena eta laguntza ematea funtsezkoa da, gerora gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak izan ditzaten.

Spoitōris ijitoek enplegua lortzeko izaten dituzten oztopoak handiak eta ugariak dira. Alabaina, ez da emaitza zehatzik detektatu kolektibo horretako gizon-emakumeen laneratzeko hobetzeko ekintzen sustapenean.

Populazio horrek enplegua eta lan-prestakuntza lortzeko duen oztopo nagusia administrazio-egoera da, atzerritarrek direlako. Beste oztopo handi bat prestakuntzarik eta titulaziorik ez izatea da. Eta titulazioaren bat badutenen kasuan, lan-merkatu sartzeko baliabideei eta mekanismoei buruzko informaziorik ez izateak eta merkatu horri eta dauden eta eskatzen diren enplegu-motei buruz duten ezagutza eskasak lan-merkatuan sartzeko galarazten die.

Pertsona horien administrazio-egoerak enplegu-prestakuntza araturako aukerarako sarbidea ere eragozten die. AlZrik gabe, oso eskaintza mugatua eta oro har lan-eskaintza prekarioak soilik eskura ditzakete. Emakumeen kasuan, ez dago ia eskaintzarik.

Nafarroako errumaniar jatorriko ijitoek pairatzen duten diskriminazioari buruzko azterlan espezifikorik ez badago ere, azterlan honek adierazten du euren egunerokoan eta modu orokortuan egiten dietela aurre egoera eta tratu diskriminatzaileei, ez bada arlo guztietan, gehienetan, adibidez, hezkuntzan, osasunean, enpleguan, etxebizitzan eta gizartean.

Era berean, egiaztatu da eskubideen titularrek ez dakitela zer baliabidetara jo dezaketen diskriminazio-egoera horiez informatzeko edo salatzeko. Eremu guztietan, eskubideen titularrek nabarmentzen dute gizarte-erakundeen laguntzea funtsezkoa dela, haien eskubideak eskuratzea errazten dietelako eta diskriminazio-egoeretakako eragozle gisa jarduten duelako.

Oro har, populazio horrekin lan egiten duten administrazio publikoetako profesionalek prestakuntza-premia handia dute, kolektibo horren gako eta aniztasun kulturalari, diskriminazioa eragiten dieten kausa eta faktoreei eta zaurgarritasun-egoerei dagokienez.

GOMENDIOAK

Ijito populazio orokorrari eta, bereziki, errumaniar jatorriko *Spoitoris* ijito populazioari buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko sistema bat sortzea,

haien eskubideak guztiz eta era ekitatiboan sustatu eta gozatzera bideratutako politika publikoak ezartzea ahalbidetuko duena.

OSASUNERAKO ESKUBIDEA SUSTATU

ERRESPETATU ETA BABESTEKO

- Errumaniatik “eskubidea esportatu ez izanaren ziurtagiria” aurkezteko zailtasunak dituzten errumaniar jatorriko *Spoitoris* ijitoei osasungintzara doan sarbidea izateko prozedura arin eta eraginkorrak bultzatzea.
- Osasun-zentroetako eta -baliabideetako administrazio- eta gizarte-langileak prestatzea osasun-sistamarako irispidea izateko prozedura horiek ezagut ditzaten, kulturarteko ikuspegi batetik.
- Pertsona horiei laguntzarako, itzulpengintzarako eta kulturarteko bitartekaritzarako baliabideak bideratzea, osasun-laguntzarako irispidea errazteko.
- Kulturarteko laguntza- eta bitartekaritza-zerbitzua hitzordu medikoetara hedatzea.
- Ijitoen Osasuna Sustatzeko Programan osasuna sustatuko duten *Spoitoris* ijito kolektiboko kideak sartzea.
- Nafarroako Osasun Sistemaren onargarritasunean lan egitea, kolektibo horren osasunerako eskubidea bermatzeko eta horretarako beharrezkoak diren baliabide egokiak gaitzeko.

HEZKUNTZA SUSTATU

ERRESPETATU ETA BABESTEKO

- Hezkuntza-etapa guztietan ikasleen jarraipena eta laguntza areagotzea, errumaniar jatorriko *spotoris* ijitoen hizkuntza- eta kultura-premietara egokitutako kulturarteko bitartekaritza-figuren bidez.
- Ijitoak eta *Spoitoris* ijitoak ikastetxeetan eskola-sustatzaile gisa sartzea.
- *Spoitoris* ijito familietako pertsona helduak sentsibilizatu eta laguntzeko baliabideak bideratzea, azpimarra eskolatzearen eta hezkuntza-sisteman jarraitzearen garrantzian jarriko dutenak, horiek baitira gizarteratzeko eta laneratzeko gakoak.
- Errumaniar jatorriko *Spoitoris* ijitoekin esku hartzen eskarmentua duten erakundeekin sareko lana eta koordinazioa sustatzea.

ENPLEGUA SUSTATU

ERRESPETATU ETA BABESTEKO

- Administrazio-egoeraren oztopoa ezabatzea enplegu-prestakuntza arautuko aukerak eskuratzeko.
- Genero-ikuspegia izango duten enplegurako prestakuntza-ikastaroak eskaintzea, eta ikastaroen ordutegiak egokitzea kontziliazioa posible izan dadin.
- Itzulpen-, orientazio- eta bitartekaritza-zerbitzuak eskaintzea gizarteratze- eta laneratze-ibilbideetan.
- Errumaniar jatorriko *Spoitoris* ijitoen artean lan-merkatuan sartzeko baliabide eta mekanismoei buruzko ezagutza sustatzea, baita dauden eta eskatzen diren enplegu-motei buruzkoa ere.

TRATU- BERDINTASUNERAKO ETA DISKRIMINAZIO- EZARAKO ESKUBIDEA SUSTATU

ERRESPETATU ETA BABESTEKO

- Herritar horien artean sentsibilizazio-kanpainak egitea, jasaten dituzten diskriminazio-egoerei buruz informatzeko edo salatzeke eskuragarri dituzten baliabideak ezagutarazteko.
- Biztanleria osoak ijitoekiko diskriminazioaren pertzepzioan dituen jarreraren bilakaerari buruzko azterlanak sustatzea eta, bereziki, osasunaren, enpleguaren, hezkuntzaren eta etxebizitzaren arloetan hautemandakoaren bilakaerari buruzkoa.
- Biztanleriaren sektore horrekin harremanetan dagoen eta harekin lan egiten duten Administrazio Publikoko profesionalen prestakuntza-eskaintzan *Spoitoris* ijito herriaren aniztasun kulturalari buruzko berariazko prestakuntza eskaintzea, bai eta osasunerako, hezkuntzarako, enplegurako eta tratu-berdintasunerako eskubideak eta diskriminazioaren kontrako borroka berariaz lantzea ere.
- Biztanleria orokorraren artean sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea, ijito populazioaren barruko taldeen aniztasuna eta premiak ezagutzeko.

BIBLIOGRAFIA

COMISIÓN EUROPEA. (2020). Dirección General de Justicia y Consumidores. *Marco estratégico de la Unión Europea para la igualdad, la inclusión y la participación de los gitanos.*

CONDE. F. (2008). *Los grupos triangulares como espacios transicionales para la producción discursiva: un estudio sobre la vivienda en Huelva.* Coord. por GORDO LÓPEZ, A.J. y SERRANO PASCUAL, A. *Estrategias y prácticas cualitativas de investigación social* (155-188). Madrid, Pearson Educación.

GOBIERNO DE ESPAÑA. (2021). *Estrategia nacional para la igualdad inclusión y participación del pueblo gitano (2021-2030).* Disponible en: https://www.mdsocialesa2030.gob.es/derechos-sociales/poblacion-gitana/docs/estrategia_nacional/Estrategia_nacional_21_30/estrategia_aprobada_com.pdf

GOBIERNO DE ESPAÑA. (2021). *Memoria Anual 2021 del Servicio de Asistencia y Orientación a Víctimas del Consejo para la Eliminación de la Discriminación Racial o Étnica del Ministerio de Igualdad del Gobierno de España.*

GOBIERNO DE NAVARRA. Dirección General de Inclusión y Protección Social. Observatorio de la realidad social. (2018). *Plan Estratégico de Inclusión de Navarra (2018-2021).* Disponible en: https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/plan_estrategico_de_inclusion_social_navarra_2018-2021.pdf

GOBIERNO DE NAVARRA. (2019). *Estrategia para el Desarrollo de la Población Gitana de Navarra (2019-2022).* Disponible en: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/gobernanza/planes-y-programas-accion-gobierno/estrategia-para-desarrollo-poblacion-gitana-navarra>

KOINE-AEQUALITAS. (2020). *Diagnóstico social de la población gitana rumana en Milagro 2020.*

ONU. (2015). *Objetivos de Desarrollo Sostenibles.*

PETCUT, GRIGORE Y SANDU. (2003). *Istoria si Tradițiile Rromilor.* Bucuresti: Ro Media.

TORRES-PARODIAS, BOLIS. (2007). *Evolución del concepto etnia/raza y su impacto en la formulación de políticas para la equidad.* Revista Panamericana de Salud Pública (RPSP).

VALLÉS MARC, (2017). *Familia, matrimonio y rito nupcial en la comunidad gitana: un breve análisis desde la antropología jurídica.* Revista Persona: revista electrónica de derechos existenciales. Recuperado de: <http://www.revistapersona.com.ar/Persona96/96Persona1.htm>

VILLACAMPA Y TORRES. (2019). *El matrimonio forzado en España. Una aproximación empírica.* Revista Española de Investigación Criminológica.

ARAUDIAK

Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea (AIAEB), (2011). *Politika Orokorren 13. Gomendioa.*

13/2023 Foru Legea, apirilaren 5koa, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzekoa.

7/2018 Errege Lege Dekretua, uztailaren 27koa, Osasun Sistema Nazionalerako irispide unibertsalari buruzkoa.

16/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, Estatuko Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa.

Europar Batasunaren Kontseiluaren 2021/C93/01 Gomendioa, 2021eko martxoaren 12koa, ijitoen berdintasunari, inklusioari eta parte-hartzeari buruzkoa.

01. ERANSKINA

Terminoen glosarioa, erreferentzia terminologikoak eta siglak

Nortasun etnikoa

Aurrekari historikoak eta iragan komun bat abiapuntu hartuta, gizatalde bat identifikatzea da. Halaber, hizkuntza bat, sinboloak eta kondairak partekatzen dituzte. (Torres et al, 2007).

GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGIKO ERAGILEEN IDENTIFIKAZIOA

Obligazioen Titularrak (TdO)

Estatuak eta haien erakundeak dira, eta TdDen eskubideak bermatzeko eta babesteko betebeharra dute.

Erantzukizunen Titularrak (TdR)

Eskubideen gaineko erantzukizunak dituen gizarte zibileko edozein pertsona edo eragile.

Eskubideen Titularrak (TdD)

Gizaki guztiak dira, eskubideak baliatzeko gaitasuna duten eskubide-subjektu gisa hartuak. Azterlan honen esparruan, Eskubideen Titularrak ijito errumaniarren *Spoitoris* kolektiboko pertsonak dira.

Itundutako ezkontzak

Gutxienez ezkontideetako bat fisikoki edo psikologikoki ezkontzera behartuta gauzatutako ezkontzak dira. Nazioarteko erakundeek eta GKEek itundutako ezkontzak salatu dituzte, batez ere adingabeei eragiten dietenean (Villacampa eta Torres, 2019).

Osasun Txartel Indibiduala (OTI)

OTIa Osasun Sistematan artatuak izateko eta prestazio sanitarioak jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentu indibiduala da. Osasun Departamentuko Lurralde Zuzendaritzek kudeatu eta ematen dute.

02. ERANSKINA

Talde triangeluarraren gidoia: Urratutako GGEE-ak Identifikatzea. Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019-2022 Estrategia

PROZEDURA

1. atala

- a. Bertaratzea eskertzea.
- b. Teknikariak eta boluntarioak aurkeztea.
- c. Munduko Medikuek errumaniar jatorria duten Nafarroako *Spoitoris* ijitoen giza eskubideen urraketei buruzko hausnarketa- eta analisi-prozesu batean murgilduta dagoela azalduko zaio taldeari.
- d. Bertaraturakoek haien bizipenen arabera erantzungo dute. Erantzun guztiak zuzenak dira. Ez eman iritzirik.
- e. Hitza hartzeko txandak errespetatuko dira.
- f. Saioa grabatuko da transkribatu ahal izan dadin, beti ere konfidentziasuna ziurtatuta (sinatutako dokumentuak emango dira).

2. atala

HASIERAKO GALDERAREN PROPOSAMENA

Talde honetan parte hartzera gonbidatu zaituztegu, errumaniar jatorriko *Spoitoris* ijito kolektiboko pertsonen eskubideei buruzko azterlan bat egiten ari garelako Nafarroan. Horri buruz zer iritzi duzuen jakin nahi dugu, zuek baitzarete protagonistak. Mesedez, hitz egin askatasunez eta aipatu egoki iruditzen zaizuen guztia.

“Espainiara iristeko prozesuari eta administrazioaren aurrean eskubide eta zerbitzuetarako irispideari buruz hitze egitea proposatzen dizuet”.

GIDOIA

OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Hasteko, Nafarroako osasun-zentro batera joan zineten lehen aldia konta dezakezue.

Zer urrats eman zenituzten? Prozesua...

Laguntzeko galdera irekiak (aipatu ezean):

- Ba al duzue osasun-txartelik?
- Noiztik duzue duzue osasun-txartela? Nolakoa izan zen txartela eskuratzeko prozesua?

HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Orain, hezkuntzari buruz hitz egin nahi nuke...

- Hezkuntza garrantzitsua iruditzen al zaizue?
- Inoiz diskriminazio-egoerarik bizi izan al duzuen konta dezakezue, bai zuen seme-alabena, ikastetxeetarako irispideari dagokionean, bai zeuena, profesionalizazio-ikastaroren baterako irispideari dagokionean... (zer testuingurutan gertatu den).

ENPLEGURAKO ESKUBIDEA

Lana topatzea ez da erraza izaten...

- Hartu al duzue parte lana bilatzeko programaren batean? Zer motatako laguntza eman zaizue lana aurkitzeko? (Gazte Bermearen ezagutza azpimarratu).
- Horrez gain, orain egiten dituzuen lanei buruz hitz egin nahi genuke; txatarra jaso eta saltzea, adibidez... Egonkorra eta iraunkorra dela uste duzue edo ez...

Eta gai honekin amaitzeko, kasurik bizi al duzue inoiz enplegu bat eskuratzen saiatu eta baztertu zaituztetenean... [Testuingurua].

TRATU-BERDINTASUNERAKO ETA DISKRIMINAZIO-EZARAKO ESKUBIDEA

Orain, berdintasunaren gaiari heldu nahi genioke:

- Gizarte-zerbitzuei eta laguntzei buruz hitz egin nahi genuke, eta horrek ekar ditzakeen zailtasun guztiei buruz ere bai.
- Jasotako tratuaren berri eman diezagukezue?
- Eman al zitzaizuen zuen eskubideei buruzko informaziorik zerbitzu publikoetatik? Eta eskuratzeko eskubidea duzuen baliabideei buruz?

03. ERANSKINA

Hirugarren sektoreko gizarte-entitateentzako eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuentzako galdetegia

Munduko Medikuek elkartean Nafarroako errumaniar ijitoen eskubide-urraketei buruzko txosten bat egiten ari gara, Nafarroako Gobernuako Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren 2023rako giza eskubideen arloan diharduten ikerketa-zentro edo -instituentzako eta erakundeentzako dirulaguntzaren deialdiaren barruan. Beraz, aldeztatik eskerrak eman nahi genizkizueke inkesta hau betetzen emandako denboragatik. Ez ditu 5 minutu baino gehiago hartuko.

Anonimotasuna bermatzeko konpromisoa hartzen dugu, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienean pertsona fisikoak babesteari buruzko EUROPAKO PARLAMENTUAREN eta KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAK xedatutakoaren arabera.

1. Zer entitatetako zara?
2. Entitateak Nafarroako spoitoris ijito-errumaniarrekin lan egiten al du?
3. Azal ezazu labur-labur nolako esku-hartzea, arreta edo lan motaren egiten duzuen komunitate horrekin.
4. Artatutako populazioari buruzko informazioa jasotzean, nazionalitatea eta etnia hartzen al dira kontuan? Kasu honetan, errumaniar nazionalitatea eta spoitoris ijito etnia.
5. Nola jasotzen da informazio hori? (Entitatearen datu-baseen bitartez, fitxategien bitartez, agenda pertsonalen bitartez eta abar).
6. Zer maiztasunarekin egiten du lan zure entitateak ijito-errumaniar populazioarekin?
 - Egunero
 - Astean hainbat aldiz
 - Hilean behin edo hainbat aldiz
 - Urtean behin, gutxienez
7. Ezagutzen al duzu Nafarroan spoitoris ijito-errumaniar populazioarekin lan egiten duen edo lan egin izan duen entitaterik?
8. Adierazi zein edo zeintzuk.
9. Ezagutzen al duzu Nafarroako Ijitoen Garapenerako 2019-2022 Estrategia?
 - Bai
 - Ez
10. Jaso al duzu spoitoris ijito-errumaniar populaziori buruzko prestakuntzarik?
 - Bai
 - Ez
11. Aipa al zenezake zer entitatek/erakundek eskaini zizun prestakuntza hori?
12. Emango al zeniguke beharrezkoa izango balitz harremanetan jartzeko helbide elektronikorik edo telefonorik?

04. ERANSKINA

Autorización de participación grupo de investigación (castellano)

AUTORIZACIÓN DE PARTICIPACIÓN GRUPO DE INVESTIGACIÓN

Médicos del Mundo, sede Navarra, con domicilio en Calle Aralar 40, Pamplona manifiesta su compromiso de cumplimiento con el REGLAMENTO (UE) 2016/679 del PARLAMENTO EUROPEO y del CONSEJO de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento General de Protección de Datos).

En consecuencia, se informa de la política de privacidad para que la titular de derechos considere si desea participar en entrevista para el estudio sobre vulneraciones de derechos, subvencionado por del Departamento de Paz y Convivencia del Gobierno de Navarra. Dicho grupo realizado con fecha el será grabado y la información se tratará de manera anónima sin poder publicarse la grabación de voz en ningún medio.

D./
 mayor de edad, con NIF, otorga el consentimiento para que
 participe libremente y consiente la grabación y uso del contenido de la misma para realizar el estudio.

Y para que así conste firmo la presente en

Firmado:

[Técnica de Médicos del Mundo Navarra](#)

Autorización de participación grupo de investigación (rumano)

AUTORIZAȚIE PRIVIND DESFĂȘURAREA INTERVIULUI DE GRUP ȘI PRELUCRĂRII DATELOR CU CARACTER PERSONAL


Organizația Médicos del Mundo (MEDICII LUMII), cu sediul în Navarra, str. Aralar, nr. 40, Pamplona, declară că va respecta și îndeplini prevederile Regulamentului 679/26 aprilie 2016 privind protecția persoanelor fizice în ceea ce privește prelucrarea datelor cu caracter personal și privind libera circulație a acestor date și de abrogare a Directivei 95/46/CE (Regulamentul general privind protecția datelor) adoptat de Parlamentul European și Consiliul Uniunii Europene.

În consecință, se aduce la cunoaștere politica de protecție a datelor cu caracter personal și dreptul de a retrage consimțământul de participare în interviul de grup, ce se realizează în cadrul unei cercetări despre încălcările de drepturi, subvenționată de Departamentul de Pace și de Interacțiune Interculturală.

Acest interviu, ce se realizează la data de, va fi înregistrat pentru tratarea ulterioară a datelor cu scopul de analiză a conținutului în cadrul cercetării. Asigurăm că înregistrarea se va utiliza strict în cadrul limitelor investigației și nu va fi publicată în nici un alt mediu.

Eu, subsemnatul(a), major de vârstă, cu numărul de identificare, autorizez ca subsemnatul(a) să participe în interviul de discuție. Sunt de acord ca acesta să fie înregistrat. Totodată, îmi dau consimțământul pentru prelucrarea, transmiterea și stocarea datelor cu caracter personal strict în cadrul cercetării efectuate de Organizația Médicos del Mundo (MEDICII LUMII).

Semnătura
tehnică în Médicos del Mundo (MEDICII LUMII)



Proiektuaren egilea

Babeslea



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua





**COMBATIMOS TODAS
LAS ENFERMEDADES,
INCLUIDA LA INJUSTICIA**



**GAIXOTASUN GUZTIEI
EGITEN DIEGU AURRE,
BAITA INJUSTIZIARI ERE**

Munduko Medikueak Nafarroa

medicosdelmundo.org